Igartzako futbol zelaitik igaro eta zubia pasatuz, Oria ibaiari begirada bat botaz, "koartza" edo "uretako dortoka" edo beste

hegaztiren batekin topatzeko aukera izateko itxaropenez beti. Orduan, kiroldegitik datorren seigarren kidearekin topatzen dira.

Ibilbidearen erdia eginda dute jada, Dolarea iritsi aurretik erdi aroko gurutzearekin topatzen dira eta baita ere Igartzako Monumentu multzoarekin eskuin aldera. Ordu horretan, jendearen mugimendua nabarmentzen hasi da eta beraz agurrak, kaixoak eta egun onak ezin bestekoak dira, isilune txikiak hautsiz. Horrela, konturatzerako geltokira iritsi dira berriro.

Geltokitik plazaraino Pergolak zeharkatuz Gernikako arbolaren pasealekua igarotzen du taldeak, zuzenean Plazapera iritsi arte. Bertan zazpigarren pertsonarekin topatzen dira, eta horrela poliki-poliki osatzen da taldea. Hamarretarako Zubimuzu plazara inguratu eta bertan batzarrari hasiera emateko. Hizketan gelditu gabean eta jardunean daudela, denbora pasatzen den modu berean taldea hazi egiten da; zortzi, bederatzi, hamar, hamaika eta hamabi.

Ordubete irauten duen batzar honetara hainbat pertsona inguratzen dira; batzuk, une txiki bat igarotzen dute; beste batzuk, urrutitik agurtu eta beraien presentzia han dagoela adierazi ondoren bere bidean jarraitzen dute. Umeak, gazteak, neskak, mutilak, emakumeak, gizonak, helduak eta adin guztietakoak parte hartzen dutelarik.

Talde oso eraginkorra da, nahiz eta ohiko estrukturarik ez izan, ondo antolatuta dago. Bere funtzioak, ekintzak eta helburuak betetzen dituelarik.

Lehen agertzen den pertsona, agintariena da eta gogor markatzen du eguneroko martxa. Bigarrena, informazioan eta komunikazioan ibiltzen dena. Hirugarrena, Teknika eta Kultura lotzen duena. Laugarrena, historia eta antzinako kontuak biltzen dituena.

Bosgarrena, beti liburu bat eskuan duela inguru guztiko mendi, baserri, auzo, ibar eta herri izenak bere memorian dauzkanak. Seigarrena, ehiztaria dena baina naturaz arduratzen dena. Zazpigarrena, erreleboetan lanean ibiltzen dena, gaztea eta indartsua. Zortzigarrena, baita ere, gaztea eta lanean dagoena nahiz eta bere gorputza zerbait ahulduta egon. Bederatzigarrena, musikagile galanta eta izen handiko pertsona. Hamargarrena, taldeko gazteena tabernagile eta ideia progresistak dituena. Hamaikagarrena, administrazio eta beste kontu ugari ematen dituena.

Talde honek ez dauka inongo hitzarmen edo loturarik, erabateko askatasunean lan egiten du. Hala ere, beste talde batzuekin hartu emanak izaten ditu, beste taldeen estatutuak ezagutuz eta hauek negoziatuz. Baina hor mantentzen da tinko eta sendo bere askatasun eta independentzian.

Gelditu gabeko ekintza pila bat egiten dira talde indartsu honetan eta beti aurrera begiratzen du, inoiz ez du atzera begiratzen, ezta abiadura hartzeko ere. Datozen moduan, eguneroko albiste eta gauza berriak adierazi eta elkarrekin mintzatuz igarotzen dute denbora. Ondoren, gai sakonen bati ondo heldu eta ondorio sendo eta emangarrietara bideratuz. Baita ere, beti adi dago taldea edozein herstura edo premiatasunezko ekintzak egiteko, "lagun-talde bolante" bezala. Hona hemen ekintza harrigarrienak:

-Inguruko herrietatik datozenei, ongi etorria eman eta Beasaindik ibiltzen lagundu gure esku zabala eskainiz (batez ere Ordiziarrei).

-Herritarrei beraien galderak erantzuteko leku jakin bat dagoela jakinarazi, modu honetan, beraien gestioak non eta nola egin lagundu ahal izateko.

-Gertu ipintzen diren postu edo saltokiei lagundu eta kasu egin ordetasunean.

-Lagundu, behar duten pertsonei ospitalera edo sendagilearengana.

-Beste puntan dagoen zapatariarena lagundu bere zapata urratuak konpondu dezan eta baita ere bitartean zapatari lagunarekin solas saio bat egin.

-Taldea beti prest dago edozein eginkizunetan parte hartzeko, adibidez txermen txuriz betetako kamioia etortzen den bakoitzean hor egoten dira itxaroten hau deskargatzeko.

-Petankako jolasa promozionatzeko entsegu serio bat egin zen Zubimuzu plazan, bertan talde guztiak eta inguratutako pertsonek parte hartu zuten.

-Negu aldean, gaztaina erreak aitzaki direla, ohitura zaharra ospatzeko festa antolatu zen, ohitura zarrak gaurkoratzeko asmoarekin.

-Noiz behinka , lehenengo gizon serioak ingelesen tankerara bizi izateko bazkalosteko tea eta gailetak jatera gonbidatzen ditu taldekideak.

-Udaletxeko agintariekin hartu-eman estuak daude, talde honek hainbat proposamenen izaten ditu herria eta ingurunea hobetzeko. Zehazki plazako eserleku, aterpea eta abar.

-Futbol ekipoa ere sortzeko ahaleginetan, hankaz eta buruz, hor dabil taldea. Hainbat futbolari aditu baitaude.

-Benetako artistak osatzen dute taldea kultura eta arte guztietan, batez ere erabat barne barneko sentimenduak adieraziz eta onginahia eta egia bilaketan murgilduta aurkitzen dena. Hala nola, idazle, musikari, margolari, zinegile, kirolari, naturazale, zientziagile eta poetak. Lan gogor egindako inguruko fabrika inportanteetan, bai langile edo mandatari, besteak oraindik lanean igarotzen duenak eta baita ere pozaldi egoeran aurkitzen direnak.

Honela eguerdiko hamaikak iristean astiro eta emeki taldea sakabanatzen hasten da bakoitza bere egin beharretara; erosketak, enkarguak, bisitak ... Hori bai, denak gauza berri bat jakinik ateratzen dira; indar berriturik, ideiak freskoak gogoratu, lanean gogor ekiteko... Hurrengo egunean berriz bueltatzeko gogoa.

Taldearen helburuak nabariak eta oso bistakoak dira, hemen adierazten diren bezala:

Ez da murriztua edo itxia baizik irekia eta zabala, edozeinek parte hartu dezake, agertzen dena eta nahi duena ez dago oztoporik, ez legerik ezta baldintzarik ere, gutxiago alderdikeriarik baizik batasun eta osotasuna izanik beti elkartasun eta maitasunean.

Taldeak ez du begiratzen atzera nahiz eta historio bat izan, baina beti momentua edo gaurkotasuna kontutan edukirik, gaurkotasuna dauka txertatuta bere ezaugarrietan.

Denari on egitea eta laguntzea da bere helburua, eta argazkian erakusgarri agertzen den bezala denak irribarretsu, pozik eta zoriontsu daudela. Gune horretan sortzen den egoera miresgarri, misteriotsu eta baketsua denei eskaintzeko. Hemendik gonbidapena pasatzeko eta zuzentasunean oinarriturik dagoen bakoitzaren bizitzeko modua bizi izateko.

Herria bere hizkuntz, kultur, nortasun, izate, grina eta osagarri guztiekin goi mailako gailurretara iritsia izango den esperantzarekin, gizatasun eta askatasunean lan ugari eginaz.

Oraingoz bukatzeko eta beste batean kontu gehiago idazteko, hemen aurkezten ditugu artista hauek. Aurkitu eta sortutako abesti polit hau kantatu eta gozatuz. Bitartean Beasaingo Jaiak zoriontsuak igarotzeko asmo eta oparoarekin agurtzen gera. Hurrengora arte.

■

Eustasio López García "TASO"

KETY LÓPEZ LALINDE

Artikulu honen helburua da Eustasio López García "Taso"k Beasainen utzitako ondarearen zati bat nabarmentzea. Irunen 1925eko martxoaren 5ean jaioa, 15 urte besterik ez zituela heldu zen Taso Beasaina, hemen errotu zituen bere sustraiak, hemen sendotu zen beasaindar zintzo modura eta zoriontsu bizi izan zen. Gizon egonezin eta ilusioz betea, ondo uztartu zituen bere familiako bizitza eta CAFeko lana, Beasaingo herriarentzat eta beasaindarrentzat onuragarri izan zitezkeen gauza guztietan laguntzeko konpromiso tinkoarekin.

Kirolzale peto-petoa eta mendizale nekaezina, tontor askotara igo zen, gehienetan Mendiko Taldeko lagunekin batera, eta tontor horietako askotan gurutzeak zeudenez, Beasainek ere berea eduki behar zuen. Lekurik egokiena Usurbe mendia izango zela erabaki ondoren, Taso lanean hasi zen eta 1953ko abuztuaren 23an hain maite zuen Usurbeko gurutzea inauguratzea lortu zuen. Oso gogoko zituen, orobat, txirrindularitza, eskubaloia eta saskibaloia. Hori zela eta omenaldia jaso zuen azken kirol horren 50. urteurreneko ekitaldietan. Kirolzale izateaz gain, kultura eta musika ere maite zituen. Loinaz errondailako kide eta banderaduna izan zen eta harreman estuak izan zituen Loinaz abesbatzarekin.

Santu kuttuna zuen Loinazko Martin eta horregatik San Martinen Lagunak taldeko kide egin zen. Besteak beste, baselizan frantziskotarrak egotearen eta baseliza bera berritzearen alde era guztietako gestioak egin zituen.

Baina Tasoren zaletasunik handiena komunikazioarena zen eta hainbat egunkari, irrati eta agentzietako berriemaile izan zen. Harentzat kontua ez zen berriak ematea soilik, baita bidegabetzat jotzen zuen hura salatu eta kritikatzea ere. Politikariak, udal teknikariak, tabernariak, botikariak, apezpikuak,... inor gutxi libratu zen haren salaketetatik.

Beste alderdi aipagarri eta goresgarri asko ere izan zituen (Beasaingo Odolemaile Elkartearen fundatzaileetako bat izatea, besteak beste) iaz 93 urte zituela zendutako gizon zintzo eta errespetagarriak.

RESUMEN DE UN LEGADO

El propósito de este artículo no es otro que el de poner de manifiestouna parte del legado que Eustasio López García "Taso" dejó en Beasain y al mismo tiempo, refrescar la memoria de quienes pudieran conocersu trayectoria e incluso hayan participado en ella.

Desde la perspectiva que me otorga su larga presencia en mi vida y la lectura de muchos de sus artículos,crónicas y demás relatos, he podido corroborar no solo el cariño que sentía por este pueblo y su anhelo porque fuera prosperando,sino el detalle que tuvo para con tantas personas a las que,por una u otra razón,consideró merecedoras de una reseña,llegando a la conclusión de que él también tenía derecho a esa misma deferencia y que sería bonito hacerlo enesta revista en la que colaboró durante tantos años.



Taso 1948

Nacido en Irún el 5 de marzo de 1925 y tras una infancia marcada por la tempranamuerte de su padre y una Guerra cruel que le mantuvo separado de su madre y de sus hermanos y hermana durante un largo periodo de tiempo, Taso llegó a Beasain con tan solo 15 años, aquí forjó sus raíces, se afianzó como beasaindarra de pro y vivió feliz.

Hombre inquieto y lleno de ilusiones, compaginó su vida familiar y sutrabajo en C.A.F con el firme compromiso de colaborar en todo lo que pudiera suponer una mejora para Beasain y sus gentes.

La Coral en la Parroquia de Ntr. Sra. de la Asunción.

Como deportista nato y montañero incansable, había alcanzado numerosas cimas, la mayor parte en compañía de sus amigos/as del Grupo de Montaña, muchas de esas cumbres se hallaban coronadas por cruces y Beasain, como no, debía tener la suya. Tras decidirse que el monte Usurbe sería el lugarideal, Taso se puso manos a la obra dirigiéndose al entonces Director de C.A.F., Emilio Ruiz y al Representante de Cementos Rezola de quienes, gratuitamente, obtuvoel material,lo mismo hizo con Gonzalo Arizmendi, aparejador municipal, a quien convenció para realizar el proyecto, contactó también con algunos otros empresarios consiguiendo que realizaran diversas aportaciones y, por último, a través de una de sus crónicas, convocó públicamentea todo el que quisiera colaborar en la instalación, logrando reunir a decenas de personas, en su mayoría montañeros y baserritarras, que con gran tesón y esfuerzo transportaron monte arriba el cemento, el hierro y todo el equipo necesario, haciendo posible,entre todos, que aquel 23 de agosto de 1953 fuese inaugurada su tan querida CRUZ DE USURBE.(En el nº 26 de la colección "Beasaingo Paperak"- Beasain 1920-1970 Apuntes de montaña de una época-, Martín García Garmendia narra con detalle este pequeño episodio de "nuestra historia local")

Siendo, igualmente, un apasionado del ciclismoy como miembro de la S.D.Beasain, Taso participó activamente, entre otras, en la organización del mundial de Ciclocrósde 1966, celebrado en nuestra Villa y en las ediciones de la Vuelta a la Costa, carrera popular organizada al detalle, que contaba incluso con sus propios Estatutoslos cuales llegaron a servir de referente para otros municipios de dentro y fuera de Euskadi y cuya ruta comenzabapor la mañana temprano, con visita al Santuario de Loiola y almuerzo en Zarautz regresandoa Beasain a última hora de la tarde, no sin antes pasar por Ordizia para deleite y envidia sana de quienes contemplaban aquel simpático pelotón mixto que llenaba sus calles de colores, ni qué decir de la subida desde el Bar Olano hasta la actual Plaza Garagartza repleta de gente animando, ¡aúpa Coppi! se oía, había que aguantar como fuese, nadie debía bajarse de la bicicleta, el orgullo hasta el final....., evento realmente bonito y participativo que algunos/as recordarán con cierta nostalgia.

Trabajó intensamente para otras dos disciplinas deportivas, Balonmano y Baloncesto, esta última notablemente afianzada en nuestra Villa y de la que mucho se ha escritopor lo que no voy a extenderme, aunque aprovecho la ocasión, eso sí, para agradecer públicamente a aquellos miembros de la Comisión del "50 Urte Saskibaloia Beasainen" que decidieron que Taso fuese uno de los homenajeados durante la celebración del 50 Aniversario y al BKL por su recuerdo y los minutos de silencio guardados en todos los partidos jugados durante el fin de semana posterior a su fallecimiento.

Entrega de Diploma a Corresponsal destacado.

Unido siempre a la cultura y como gran aficionado a la música, fue integrante de la Rondalla Loinaz siendoademás su abanderado y de la que guardaba recuerdos imborrablescomo cuando participaron en el concurso "Salto a la Fama", obteniendo el primer premio, o actuaron ante la reina Fabiola de Bélgica, ni qué decir delas constantes y divertidas ocurrencias de su solista Félix Cerrajería "Felisín" y en general aquellas vivencias de las que todo el grupo pudo disfrutar.

Por supuesto he de resaltar su estrechavinculación a la Coral Loinaz, con tres de sus grandes amigos, Juan Miguel Irizar, a quien consideró un "auténtico hermano"y cuya fotografía llevó siempre consigo, Rafael Briz, también muy querido y Ramón Aramburu "Txambo"con quien compartió tres de sus aficiones: la montaña,el ciclismo y la música, siendo ambos cofundadores delentrañable "Otxote Usurbe".

OTXOTE USURBE

El gran fervor que sentía hacia San Martín de Loinaz le llevó a formar parte de "Los Amigos de San Martín", realizando todo tipo de gestiones para que la Basílica fuera albergada por frailes franciscanos, como así fue, esforzándose para que pudiera acometerse su posterior reforma, a más de uno/a le sonará la "Operación Teja" que puso en práctica precisamente para conseguir los recursos económicos necesarios, luchando para acallar las voces de quienes afirmaban que San Martín era oriundo de Bergara, recuerdo, como si fuera hoy, el momento en que tuvo en sus manos el manuscrito en el que el propio Santo afirmaba haber nacido en IGARTZA, a 4 leguas de Tolosa. ¡Aquí está la prueba! exclamó lleno de alegría.

Pero la gran pasión de Taso fue, sin duda, la COMUNICACIÓN, siendocorresponsal, durante muchos años, de los Diarios "La Voz de España" y "Unidad" así como de la Agencia E.F.E. y colaborador de Radio Segura y de Radio Popular de Loyola, incluso hasta no hace tanto tiempo seguía remitiendo notas de opinión al Diario Vasco, por cierto que la Direcciónde este periódico le llegó a ofrecer en su día la corresponsalía de Beasain, con un importante incentivo económico, tras comprobar que era el único municipio guipuzcoano en donde se vendían más ejemplares de la "Voz" que del "Diario", oferta que rechazó para no traicionar la amistad que le unía con quien en esos momentos era su corresponsal, Santiago Urdampilleta y es que siempre le oí decir que hay cosas que no tienen precio.

Para Taso no se trataba solo de informar, sino tambiénde denunciar y/o criticar aquello que consideraba injusto, ilegal o falto de legitimidad. Escribió siempre con plena libertady pese a lo que algunos/as pudieran pensar por el hecho de escribir en la Voz de España, ni fue ni se sintió jamás rehén de ningunas siglas, sus defensores y/o detractores lo fueron de todas las ideologías ya que su finalidad no era contentar ni denigrar a nadie, sino serobjetivo y veraz. Por poneralgunos ejemplos, arremetiócontra políticos y técnicosmunicipales al permitir ejecuciones urbanísticas cuanto menos cuestionables, pordejar que un profundosocavón, situado en mitad de la calzada, permaneciese durante varios días sin reparar hasta provocar un grave incidente,por no dar solución a barriadas con difícil accesibilidad, etc. Denunció corruptelas, criticó la actitud de algún vecino por su conducta inmoral como fue el caso de un hostelero que cobró a precio de oro sus productos, incluido el agua, a los pobres viajeros que se vieron obligados a permanecer durante horas en la Estación a consecuencia de una avería en la vía férrea y que por cierto, lejos de arrepentirse o de pedir disculpas, amenazó a Taso por haberlo hecho público. No dudó tampoco en reprobar a los farmacéuticossu decisión de modificar los turnos de guardia que comenzaron a hacerse entre farmacias dedistintos municipios cuando, por aquel entonces, en muchas casas no se disponía de vehículo. Ni siquiera el obispo de Donostia José María Setien se libró tras la decisión de que la residencia de los frailes de San Martín

se trasladara a Segura, ¡Con lo que costó que viniesen a Beasain!, decía Taso indignado.

Si bien no estuvo en sus manos tomar decisiones, me consta que muchas de sus críticas y denuncias no cayeron en saco roto, sirviendo para enmendar algunas conductas y para que ciertos "errores" no se volviesen a repetir.

Dulce MªLoinaz leyendo sus poemas en el Pórtico de la Basílica de San Martin de Loinaz.

Por otra parte, en sus crónicas no faltó nunca una sección "gratuita" para Felicitaciones, Agradecimientos y Pérdidas de objetos. Contaré brevemente una anécdota. En una ocasión se le acercó un señor pidiéndole que publicase la pérdida de su dentadura, atónito Taso pero con la empatía que le caracterizaba, no dudó en hacerlo. Transcurridos unos días y aunque parezca mentira, una persona llamó para decirle que había encontrado una dentadura, ya en su poder llamó al interesado y quedó con él para dársela, pero cual fue su sorpresa cuando el señor, al verla, exclamó "¡Esta no es la mía!", recuerdo nuestras carcajadas cuando nos lo contaba, por supuesto la dentadura terminó..... en la basura.

Característica de Taso fue también la perseverancia y por poner un ejemplo, no cesó en su empeño hasta conseguir que la Ilustre premio Cervantes, Dulce María Loinaz, tuviera su calle en estemunicipio, no solo por su incuestionable talla intelectual, sino por ser pariente directa de San Martín y recibir siempre con sumo agrado y hospitalidad a todo/a beasaindarra queviajaba a Cuba y se acercaba a su casa para visitarla. Este propósito se hizo realidad durante la alcaldía de Jon Jauregi, con quien mantuvo varias reuniones al efecto, consiguiendo que un bonito rincón de nuestra Villa lleve el nombre de esta Gran Poetisa.

Las causas solidarias también estuvieron presentes en su vida, siendo cofundador de la Asociación de Donantes de Sangre de Beasainjunto con dos personas maravillosas, José Ignacio Sánchez y su esposa, Mariasun Paredes, participando por primera vez, como tal Asociación, en la Asamblea celebrada en Irún en el año 1970. Igualmente trabajó intensamente para Cruz Roja, aún recuerdo sus quebraderos de cabeza hasta lograr reunir los fondos necesarios para poder comprar una ambulancia, la primera que esta Asociación tuvo en Beasain. ¡Qué tiempos! Este talante solidario quedó de manifiesto, igualmente, cuando siendo Secretario de la S.D. Beasain y miembro del Grupo de Montaña se decidió organizar una visita anual a lo que entonces era el Hospital de Beneficencia, ubicado en el lugar que ocupa la actual Residencia Arangoiti, a fin de que las personas más vulnerables y desfavorecidas del pueblo disfrutasen de una emotiva Fiesta y el Centro recibiera una subvención económica y un obsequio en recuerdo del acto, siendo una bonita costumbre que ha perdurado hasta la fecha. (También Martín García Garmendia narra este hecho en el nº 26 de la colección "Beasaingo Paperak").

Rondalla Loinaz rumbo "Salto a la Fama".

Por último, no puedo dejar de mencionar su faceta como corresponsal de una conocida Agencia de Viajes cuando, en sus inicios, no había ninguna oficina de este sector en Beasain, haciendo posible que durante más de 30 añosmuchas personas, de todas las edades y condiciones, pudieran disfrutar de hermosos lugares fuera y dentro de nuestras fronteras. Había quienes al regreso de una excursión ya se apuntaban para la siguiente, sin conocer siquiera el destino ni el precio, aunque, eso sí, sabían que este último iba a ser siempre el más ajustado posible. Resulta gratificante que a día de hoy siga habiendo

gente que se acerque para mostrarnos su agradecimiento por haber podido participar de los que hacían llamar "Los Viajes de López".

Como dice una canción "Las obras quedan, la gente se va....." y Taso se fue en la madrugada del 14 de marzo del pasado año, dulcemente, tranquilo, recién cumplidos los 93 años, mayor sí pero con su espíritu de juventud intacto y habiendo tenido la suerte de ver realizados muchos de sus sueños. Los últimos meses de vida, cuando ya las fuerzas le flaqueaban, pasaba horas en "sutxoko", como lo llamaba, junto al mirador, leyendo, resolviendo crucigramas para ejercitar su cada vez más desgastada memoria, contemplando su querida calle Oriamendi y como no, su Cruz de Usurbe, algunas veces le veíamos andar por casa nervioso y le preguntábamos "¿qué haces?," "estoy buscando la cámara" nos contestaba; "mi Cruz está preciosa y tengo que sacarle una foto" (otra de sus grandes aficiones), no necesitaba nada más para ser feliz y sentirse el más afortunado del mundo, dichoso en su piso de la CASA ZORTZIENA, a la que tanto amaba, de la que estaba orgulloso al haber sido, junto con otros siete amigos, uno de sus promotores, movidos todos ellos por el deseo de hacerse con su propia casa ya quienes, por ello, muchos/as en el pueblo tacharon de "locos" ¡ Bendita locura! siendo, si no el primero, uno de los primeros inmuebles construidos en Beasain tras la Guerra Civil y que para Taso significó su auténtico refugio.

Imagen de la Vuelta a la Costa.

Sí, Eustasio López García "Taso" fue mi aita..... y mucho más, un espejo en quien mirarme, de quien aprendí, entre otras cosas, que cuando acometemos un proyecto, por muy loable que sea, ha de ser por convicción y con responsabilidad, nunca esperando Premios o Reconocimientos que, a la postre, solo servirían para alimentar nuestra vanidad y si lo fueran a título póstumo ni para eso. Que debemos trabajar para formar nuestra propia conciencia a base de adquirir conocimientos y de tener siempre como referencia ejemplos de buena conducta, así la satisfacción personal que logremos en todo lo que hagamos será, a buen seguro, nuestra auténtica recompensa y mayor motivación. Que la vida, por muy larga que sea, siempre resulta demasiado corta y vale la pena vivirla con honestidad y coherencia si queremos ganar nuestra propia estima y el RESPETO de los demás.

■

ARANTXA URKIA

TERAPIAS ALTERNATIVAS Y MANUALES

Osteopatía · Terapia cráneo sacral · Masaje terapéutico y deportivo
Reflexología podal · Par biomagnético

Oriamendi 24 · Tel: 606 38 15 34 · Beasain

Murumendi eta inguruetako zenbait istorio agiri zaharretan

FIDEL ALTUNA OTEGI

Es típica la afirmación de que a los vascos, desde siempre, no nos ha dado mucho por escribir. Es por ello que nos faltan muchos datos sobre nuestro pasado, datos que son difíciles de recuperar. Sin embargo, entre la documentación antigua de nuestros archivos, entre los documentos más humildes, en los protocolos del escribano, en los papeles de la parroquia, en las cuentas del más pequeño ayuntamiento, hay mil datos e historias. Para este artículo, y tomando la zona de Murumendi como escenario, hemos escogido tres de esas historias: el desencuentro entre un vecino beasaindarra con un regidor del ayuntamiento, una pendencia entre arrieros y un animal de nuestra fauna ya desaparecido que habitó aquellos parajes. El objetivo es ayudar a imaginar cómo podía ser la zona de Murumendi y alrededores allá por el siglo XVIII, una zona de mucho tránsito de personas, y, a la vez, la zona más montuosa y salvaje del municipio.

Aurtengo Aste Santuko oporretan —«Aste Santuetako» entzuten diot geroz eta jende gehiagori, erlijiorako bat-bateko grina modukoren batek hartu balitu bezala—, festetako urtekari honetarako zer idatzi ote daitekeen pentsatzen jarrita, bururatu zait Beasainekin lotutako pare bat pasadizo kontatzea, egunotan paper zaharretan topatu ditudanak. Dagoeneko hor ikusten ditut badabiltzala Usurbe eta Murumendi inguruan gora eta behera «entrenoak» egiten, beren gadgetei begira, batzuk diosalik egiteko ere betarik gabe, datorren hilean Ehun Milien probetakoren batean ateratzeko asmotan direnak, eta, hain zuzen, bide horietan oso bestelako jendea zebilen garaietako pare bat gertaera dira kontatu nahi nituzkeenak.

Murumendin betidanik ibili den bi hankako «fauna» hori aipatzeaz batera, Euskal Herriko lau hankako faunan nahiko ezezaguna den animalia bat, piztia bat, aipatu nahi nuke gainera, Beasaingo lekurik menditsuena eta basatiena den Murumendi inguru horretan ere noizbait bizi izan zena eta gure paper zaharretan «tigre» esaten diotena.

1. IRUDIA. Goikoa bezalako hainbat agiritan, Euskal Herrian «tigreak» aipatzen dira. Ataungo Udalak, 1721-22 ekitaldian, 146 erreal eta erdi ordaindu zizkien «â diferentes cazadores de lobos, ossos y tigres que durante su año vinieron a esta villa con cazas maiores...»

Harrigarria da, izan ere, paper zaharretan jasota dagoen datu eta istorio kopurua... Euskaldunongatik esan izan da ez dugula asko idatzi, ez gai historikoez, ez inolako zientziataz... eta gustukoago izan dugula gauzak egitea idazten jardutea baino. Euskaraz idatzitakoari buruz ari bagara, berriz, hori oraindik nabarmenagoa da; erlijio gaiak izan dira batik bat euskaraz landu izan ditugunak, eta, atzo goizera arte, ezer gutxi dago bestelakorik. Horrek, idazteko gure joerarik ezak, gure iraganaren ezagutzari buruzko halako zulo moduko bat sortu digu zenbait gaitan, baina, ordainetan-edo, eskribauen protokoloetan eta udal nahiz eliz artxiboetan paper zahar mordoak ditu zain gure iraganaren zulo horiek betetzen saiatu nahi duenak. Iraganeko jendeak beren bizitzetan barrena sortutako agiri xumeak dira, inongo literatura asmorik gabekoak, baina badirudi konturatu garela beren balioaz, eta, gure artxiboen egoera geroz eta hobeak lagunduta, internetek ematen duen laguntza eta erosotasunaz, geroz eta jende gehiagok jotzen du horietara.

Adibidez, euskararekin lotutako hainbat datu aurkitzen dira paper horietan, hiztegiari dagozkionak gehienbat. Ataungo Udaleko kontuak gainetik begiratuta, esate baterako, ez da arraroa tarteka euskaraz hitz egitean erabiltzen ziren hitzak agertzea:

... poner una ESTACADURA en el rio prinzipal... (1687), ... tres coartillos por la mitad del MAQUILLAJE del dicho molino... (1693), ... dos zerrajas nuebas con sus PALENCAS de fierro... (1695), ... tres reales por los clavos y

ENTENGAS que hizo... (1696), ... siete estados de COLOMADURA con sus USQUERICOS y clavazon... (1696), ... por las ATALAS que yzo en terminos conzegiles... (1699), panes y vinos que dio para el AUZALAN del camino de... (1716), ,,, tres pares de OPILACULLUS que hizo para el molino... (1722), ... una barra nueba de hierro y otra ramienta que llaman ZAIO... (1723), ... quince reales pagados por el corte y BASALAN de cinco maderos... (1735), ... carpinteria de los molinos y su MANDIADURA... (1738), ... tres ARJAQUIS y un pico echos para los molinos... (1741)

Horietako batzuk hitz teknikoak dira, zurgintzaren eta erroten teknologiarekin loturikoak batik bat, eta batzuk, gainera, inolako hiztegitan agertzen ez direnak eta zer diren ere ez dakigunak. Zergatik? Bere garaian inork gai horretaz euskaraz ezer idatzi ez zuelako, eta, beraz, hitz horiek galdu egin zirelako.

Garaiko ohitura eta bizimoduari buruzko hainbat datu ematen dizkigute paper horiek: ekonomia, erlijioa, denborapasak, emakumeak, natura, delituak... Adibide txiki bat aipatzeko, arrantzan egiteko legez kanpoko sistemak erabili izan dituzte batzuek betidanik. Baina zein sistema ziren horiek? Arruntena errekara karea botatzea zen: erreka erreta uzten zuten, eta hildako arrainak jaso. Baina beste batzuek intxaur berdeen zukua botatzen zuten uretara, edo ezki arbolaren azala, helburu bera lortzeko:

... algunas corttezas de arboles que bulgarmente llaman EZQUIA cuyo zumo es nocivo para la pesca... (1743), ... algunos an echado NOGADA y quemado los pozos de dichos rios para cojer truchas y ainguilas... (1748)

Hizkuntzari lotuta, berriro ere, toponimo mordoa agertzen da agiri zahar horietan. Nonahi daude. Beasaingo toponimo bilduma osoena hartzen dugula ere, aspaldiko dokumentazio horretan beti aurkituko ditugu gehiago, agortzen ez den iturria balitz bezala, beti emangai duena. Adibidez, Beasaingo erretoreak 1643an errentan emandako terrenoak izendatzean hor ditugu hainbat lekuizen: ARAMBELZA, ATALODI, AUNZSASI, LERSUNDI, OSYNIRAQUINA, OTAERRE, PAGADIÇAVAL, UDACORRIAOA, URBIZUBASOA, YTURRIOZPEE, etab. Toponimo horietako batzuk ezagunak ditugu, baina beste batzuk ez dira inon ageri eta ez dakigu non zeuden, askotan ezta gutxi gorabehera ere.

Eta datuekin batera, aspaldi hartako bizimoduarekin lotutako milaka anekdota. Horietako bi izango dira, hasieran esan bezala, jarraian kontatuko ditudanak.

Agorta, 1734: Miguel de Muruari behiak bahitu zizkioten

Ekainak 1. Miguel de Muruak zorte txarra izan zuen egun hartan. Beasaingo herriak mintegia zuen leku horretan, seguru asko elorriz eta sasiz osatutako hesi batez babestua, ohitura zen bezala, baina hala ere hogei bat behi barrura sartu eta kaltea egiten ari ziren. Martin de Leunda errejidorea iritsi zen orduan —abisuren bat jaso zuelako ziurrenik— Domingo eta Miguel de Maiz anaiekin, Agortan aurkitu zuen behi taldea bahitu, eta Miguel de Maizi eman zizkion jaso zitzan. Behietako hiru edo lau Muruarenak ziren, nonbait.

2. IRUDIA. Muruari ez zion batere graziarik egin Leundak bere behiak bahitu izanak: «Comenzo a tratarle injuriosamente de palabras y haciendole al querellante hombre de mala fee, (...), añadiendo con gran mofa estas palabras: "Â este le deve de parezer que en Beassain no hai hombre como el"».

Ekainak 2. Beasaingo kaleko Zubimusu etxean agertu zen Murua, bero-bero eginda. Zubimusun zeuden, Juan Francisco Larrañaga etxeko nagusiarekin batera, Leunda bera, Pedro de Arana alkateordea, eta beste zenbait lagun. Leundari gaiztakeriaz jokatu izana leporatu zion Muruak, izan ere, mintegian benetan hogei behi sartu izan balira, kalteak askoz handiagoak izango omen ziren; Muruak zioen Leundak han inguruan harrapatu zituen behi guztiak bahitu zituela, fede gaiztoz, mintegi barruan zeudenak bezala baita mintegitik kanpora zeudenak ere. Leundak Muruari erantzun omen zion hitzak neurtzeko, ez zirela gauzak horrela gertatu, baina Murua oraindik gehiago berotu zen, Leunda gezurtitzat jo eta bestelako irainak ere bota zizkion. Muruaren hitzek burla kutsua ere hartu omen zuten bazkalondo hartan

(eskribauek, zoritxarrez, gaztelaniara itzuli ohi zituzten honelakoak): «Â este le deve de parezer que en Beassain no hai hombre como el».

Ondoren, espero bezala joan ziren gauzak. Leundak salaketa jarri zuen eta lekukoak aurkeztu zituen: Agortan behiak bahitu zituenean han berarekin zirenak, batetik; eta bestetik, Zubimusu etxean zeudenak Murua hara agertu zenean. Eskatzen zuen zigorra ere, gaur gehiegizkoa iruditu arren, normala da garai hartarako:

A Vuestra Merced pido y suplico... se sirva mandar que por aora sea reduzido a prision y se embarguen sus bienes y a su devido tiempo por auto o sentencia declararle por echor y perpetrador de los delitos de que ba acusado mandando en su consecuencia executar en su persona y vienes las mas grabes penas en que por derecho y leies reales...

Kontua da, bada, Agortako lekukoek esan zutela bahitutako behi guztiak mintegi barruan zeudela, eta Zubimusun zeudenek Muruaren irainen berri eman zioten epaileari. Muruak ez zuen lekukorik aurkeztu eta galdua zuen, beraz, auzia. Momentu hartan Beasaingo erretorea agertu zen, ordea, eszenan (eta deitura ezin egokiagoa zuen, gainera, auzi honetan parte hartzeko): Martin de Minteguia. Eskribauaren eta epailearen aurrera agertu ziren, bada, Leunda eta Murua, erretorea bitartekari zutela. Ekainaren 18a zen. Erretoreak proposatu zuen Muruak onar zezala gaizki informatuta egoteagatik esan zituela esan zituenak, eta ez zirela egiak, barkamena eska zezala eta ordain zitzala prozesuak sorturiko gastuak, eta, Leundari zegokionez, onar zezala barkamen eskea eta besterik gabe utz zezala bertan behera auzibidea.

Horrelaxe, hortaz, Leundak eta Muruak batak besteari barkatu eta eskua eman zioten elkarri. Hurrengo egunetan, Muruak izango zuen zen ordaindua: San Juan egunerako, prozesuaren gastuak, eta ondoren, behien bahitura.

Murumendi, 1757: Francisco de Zubizarreta jipoitu zutenekoa

Urrestillan hasi zen guztia, 1757ko abuztuaren 20an, larunbatez. Malkorrako burdinolara joan ziren lau mandazain ataundar ikatza eramatera: Francisco de Zubizarreta (28 urte), Miguel Antonio de Barandiaran (19 urte), Francisco de Maiza (25 urte), Juan Antonio de Maiza («Guerluzea» esaten ziotena, 40 urtez gorakoa eta aurrekoaren lehengusua). Mandoen ikatz karga han utzi ondoren, Urrestillako taberna batean bildu ziren denak ardoa edatera. Koartillo erdia edan omen zuen bakoitzak, litro laurden bana, eta geroago bi ikazkin ezagun agertu zirenean haiekin ere edaten segitu zuten. Ardoaren beroarekin sortu zen apustu giroa, eta sesioa. Zubizarretak Juan Antonio Maizari esan omen zion bera hobea zela sortakada otea eramaten, eta Maizatarrak «Muruko gainera» edo urrunago korrika zein lehenago iritsi desafioa bota zion: zilarrezko duroa jokatuko zutela, eta geroxeago, berriz, ontzako urrea jokatuko zutela. Zubizarretak desafioa onartu eta, seinaletzat, Francisco Maizari pezeta bat eman zion. Juan Antonio Maizak ez zuen, ordea, apustuarekin aurrera jarraitu, eta Zubizarretari mespretxuz hitz egin omen zion gainera, esanez ea nondik atera behar zuen hark ontzako urrea. Zubizarretak erantzun zion etxekoek erantzungo zutela beragatik, eta Juan Antoniok bota zion, hurrena, ez zela hura gauza beraren kontra korrika egiteko.

3. IRUDIA. Urrestillatik Murumendira korrika joatea, irudikoa bezalako ontzako urrea jokatuz. Apustua ez zen egin azkenik, baina hortik etorri zen sesioa.

Trabesa bertan behera geratu zen horrela, eta Zubizarretari seinaletzat emana zuen pezeta itzuli zitzaion. Francisco Maizak proposatu zuen orduan bi pezeta jokatzea kartetan, «al truque», eta bikoteka hasi ziren jokoan: Zubizarreta eta Barandiaran, Maizatar bi lehengusuen kontra. Maizatarrak izan ziren lehenengo jokoan garaile, eta diruaz gainera hiru ardo «chiqui» ere irabazi zituzten («txikitoa» ez da atzo goizeko kontua, agidanez). Bigarren jokoa ere hasi zuten, sei trukera, baina Maizatarrek bat edo bi truke zituztela eta besteek hiru, ia lau, Juan Antonio Maiza eztabaidan hasi zen kartak banatzeko

moduagatik edo tantoren batengatik. Zubizarretak eta Barandiaranek mahaitik altxatu eta etxera zihoazela esan zuten orduan, ez zutela horrela jokatzen segitu nahi. Francisco Maiza ere altxatu eta Zubizarretari bitan heldu zion geldiarazi nahirik, lehenengo eskaileretan behera zihoala eta bigarrena kalean, mandoak hartu eta etxerantz abiatua zenean, eta Zubizarretak, bietan, bultza egin eta gainetik kendu zuen.

Zubizarreta eta Barandiaran «Muruko gainera» iritsi zirelarik, Maizatarrek han atzetik harrapatu eta irainka hasi omen zitzaizkien: Barandiaran mukizua zela, Zubizarreta zitala, «perro charrac» zirela biak eta ez zirela gauza eurekin apustu egin edo jokoan aritzeko. Barandiaranek erantzun, eta Francisco Maizak eraso egin eta «capusai»tik heldu omen zion. Zubizarreta laguntzera joan zitzaion eta Barandiaranek, orduan, askatu eta ihesari eman zion, Zubizarretaren mandoak eta bereak hartuta. Hirurak eztabaidan utzi zituen, baina ez omen zen konturatu zer gertatzen zen. Eta gertatu zena izan zen Francisco Maizak Zubizarretari ileetatik heldu eta lurrera bota zuela, Juan Antonio lehengusua ere iritsi eta bien artean sekulako astindua eman ziotela: arropak txikitu zizkioten, ileen erdiak atera, ostikoka erabili eta aurpegian, eta buru guztian, kolpeak eman ukabilekin edo, agian, harriak erabiliz, ia kordea galduarazi arte, eta bizirik uzteko eskatzen zielarik, joka segitzen zuten, bertan gelditu beharko zuela esanez.

Halako batean, Juan Antonio apartatu egin zen eta Zubizarretak altxatzeko keinua egin zuen, baina une hartan Franciscok ordura arteko kolperik handiena eman zion, buruan. Orduan Zubizarretak laguntza eskatu zion oihuka Juan Antoniori eta honek lehengusuari heldu eta berekin eraman zuen. Maizatarrak bere mandoetara apartatu ziren eta badirudi haiekin berriro abiatu zirela, baina handik gutxira atzera bueltatu, eta Zubizarretari easn zioten altxatu eta etxera joan zedila. Zubizarretak erantzun zienean ez zela gauza ibiltzeko, euren mandoetako baten gainean jarri eta hirurak abiatu ziren bidean aurrera. Handik gutxira, «Gainzaran» parean zegoen «Buruzulo»ko iturrira iritsi eta Francisco Maiza han gelditu omen zen, ura edaten-edo. Zubizarreta Juan Antoniorekin iritsi zen Atauna, gaueko hamabiak aldean. San Martingo plazara ailegatu aurretik zeuden haien etxeak. Juan Antonioren etxea zegoen aurrena, eta Zubizarretak hortik aurrera bakarrik jarraitu zuen, oinez, aurreraxeago bere etxera iritsi zen arte.

Zubizarretak «Ecce homo» zirudien, ikusi zuten lekuko batzuen arabera. Bestela esanda, kristo eginda zegoen. Etxekoek zirujauari deitu zioten etxera iritsi bezain pronto, eta hurrengo egunean Lazkaotik medikua ere ekarrarazi zuten. Gizonaren egoera ikusita, egun horretan bertan, igandez, iluntze aldera, apaizak azken sakramentuak eman zizkion. Prozesu judiziala ere egun horretan bertan jarri zen abian. Herriko alkatea, aguazila eta abar Maizatarrak atxilotzera joan ziren, baina haiek ihes eginak ziren. Bilaketa hastearekin batera, Ataungo Imaz alkate-epailearen aurretik pasatzen joan ziren hainbat lagun, beren lekukotza ematera: Zubizarreta bera, Iturmendi zirujaua Barandiaran gaztea... Zubizarreta, antza, ordurako hobera egiten hasita zegoen, baina zirujauak zauriez egiten duen deskripzioak ez du zalantzarik uzten haien larritasunaz: horietako zenbait harriekin egindakoak zirela dio, eta baten bat oso sakona, buruhezurra bistan uzterainokoa.


y Juan Antonio de Maiza los alcanzaron: luego quí
vieron armar pendencia, diciendo, que el testigo era
un mocoso, y el dicho Zubizarreta era un hombre ruin, y am
bos â dos eran Perrocharrac: del tiempo, y el dho Zubiza

4. IRUDIA. Barandiaranen deklaraziotik hartutako pasartea: «Francisco y Juan Anttonio de Maiza los alcanzaron y luego quisieron armar pendencia, diciendo que el ttesttigo era un mocoso y el dicho Zubizarretta era un hombre ruin, y ambos â dos eran PERRO CHARRAC.»

Horrela, bada, egunak pasatzen joan ziren, Zubizarreta geroz eta hobeto zegoen, eta, irailaren 12an, Maizatar bi lehengusuek beren buruak entregatu zituzten. Herriko kartzelan sartu eta, berehala, deklarazioa hartu zitzaien. Ematen duten bertsioa, jakina, desberdina da gertatu zenaren erruduna bilatzeko garaian: Zubizarreta hasi zen tabernan apustu kontuekin, kartetan Zubizarretak eta Barandiaranek egin zuten gaizki mahaitik altxatzean, «Muruko gainean» Barandiaran izan zen irainka hasi zena, Zubizarretaren buruko zauriak borrokan ari zirela lurreko harriekin egindakoak ziren... eta guztiak ardo gehiegi edanda zeuden.

Kontuak kontu, irailaren 30ean, Zubizarreta ordurako sendatua zela, bi aldeek akordioa sinatu zuten eskribauaren aurrean: Maizatarrek onartu zuten pagatuko zituztela, batetik Zubizarretari kalteordaina, eta bestetik prozesu guztiaren gastuak. Juan de Arrondo apaiza izendatu zuten kalkuluak egin eta ordaindu beharrekoen zenbatekoa ezartzeko. Akordio horren ondoren, hurrengo egunean, urriak 1, Maizatar bi lehengusuak libre utzi zituzten. Prozesuak, hala ere, beste urte eta erdi iraun zuen, eta Arrondo apaizak 1759ko martxoaren 24ra arte ez zuen bere epaia jakinarazi. Pentsatzekoa da Maizatarrek ordainketak egingo zituztela ondoren, eta horrela bukatuko zen Murumendin izan zen gertaera honek ekarri zuen soka luzea.

Euskal Herriko «tigreak»

Euskal Herrian garai historikoetan egon diren piztiez hitz egitean, hartza eta otsoa dira beti aipatu izan direnak, baina gorago esan bezala izan zen beste animalia bat, agiri zaharretan «tigrea» esaten ziotena. Hartza eta otsoa bezain ezaguna ez izate horrek nahaste batzuk ere ekarri ditu, eta, adibidez, Iñaki Egaña historialariak ederki sartu zuen hanka bere liburu ezagun batean (Mil noticias insólitas del país de los vascos, Tafalla, Txalaparta, 2001, 149. or.):

La costumbre de los reyes navarros de importar animales salvajes para la caza fue también seguida por los jauntxos guipuzcoanos hasta épocas no muy lejanas. Muchos de estos tigres, panteras o leopardos no volvían a la grupa después de cazar a su víctima, perdiéndose en la espesura de los bosques.

Afrikatik edo Asiatik ekarriak lirateke, beraz, Euskal Herriko mendietan ehiztariek botatzen zituzten «tigreak»... Harrigarriena da ondoren Iztuetak aipatzen duen «tigre» baten adibidea jartzen duela, Iztuetaren pasarte hau aipatuz (Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia, Donostia, Ignacio Ramon Baroja, 1847, 193-194. or.):

Milla zazpieun iruroguei ta amasei-garren urte inguruan, catamotz izugarri bat arrapatu zuten Idiazabal-co artzaiac cepoan Aranzazu mendian, ceña icusi izan neban Zaldiviaco nere jaiotechean, larrua quendu baino len bere aragui ta guzti zaldi gañean cerabiltela alderrietaco artzaien artean atzitze-sari esque. Eiz caltarquitsu au icusiric aiñ andia, nere aitac pisatu izan ceban guizon ascoren aurrean bera: iruroguei ta emezortzi libra. Iduritzait orainchen ere beguien aurrean daucadala catamotz icaragarri aren ichura. Guztiz ceban colore gorri oritaraco ederra, bere picort beltch distiatuaquin unetic unera or emen chit egoqui apaingarritua, bañan beraren ortz aguiñac, sudurmintzetaco bizar lodi gogorrac eta azcazal luce cacotu zorrotzac icusi ta beste bague, ezurretarañoco icara sartu cequioquean edoceñi.

Iztuetak garbi dio katamotz bati buruz ari dela, ez Asiako tigre edo Afrikako leopardo bati buruz. Hau da, erdaraz, gaur egun, lince esaten zaion piztiari buruz. Zer gertatu zaio, bada, Egañari? Bada, esango nuke, Iztuetaren lanaren erdararako itzulpena bakarrik irakurri duela, Joxe Lasa ataundarrak eginikoa (La Gran Enciclopedia Vasca, 1975, 611-612. or.). Erdarazko bertsioan, hain zuzen, katamotz itzultzeko garaian «espantoso tigre» eta «terrible tigre» hitzak erabiltzen dira, eta hori izan da, antza, Egaña nahastu duena.

5. IRUDIA. Kolore gorri horitarako ederra, bere pikort beltxakin... Murumendin, hartzez eta otsoez gainera, segurua da bazirela Iztuetak deskribatu zuena bezalako katamotzak, argazkian ikusten denaren antzekoak.

Euskaraz idatzitako gauzei ez ikusiarena egitearen bekatu hori esango nuke, Egañari ez ezik, beste hainbat historialari eta ez historialariri ere gertatzen zaiela, edo euskaraz ez jakiteagatik, edo hala moduz dakitelako, alferkeriagatik, euskaraz idatzitakoagatik duten aitortu gabeko mespretxu moduko batengatik, edo dena delakoagatik, baina halakoak gertatzen dira. Hain zuzen, Iztuetaren pasarte horrekin loturiko beste adibide bitxi bat ere badago, jarraian kontatuko dudana.

Katamotzetan, bi espezie dira batik bat guk ezagutzen ditugunak: Lynx pardinus edo katamotz iberiarra, batetik (Espainia hegoaldean); bestetik, Lynx lynx edo ipar katamotza (Eurasiako hainbat lekutan). Lehenengoaren kasuan, 15 kg-koa handitzat jotzen da, eta untxiez elikatzen da; bigarrenaren kasuan, 30 kg-ra ere irits daiteke, eta orkatzez elikatzen da, besteak beste. Posible da, bai kasu batean, bai bestean, ale batzuek pisu horiek gainditzea. Kontua da eztabaida egon dela biologoen artean, ea Iberiar penitsula iparraldean bi espezieetako zein bizi izan ote zen. Hiruzpalau urte izango dira egunkari guztietan albiste bat atera zela, horrekin lotuta, ikerketa baten emaitzak plazaratzen zituena: penintsulako isuri atlantikoan bizi izan ziren katamotzak ez ziren, askok uste bezala, katamotz iberiarrak, ipar katamotzak baizik, hau da, Espainian gaur egun hain ezagunak diren katamotz iberiarrek bi halako pisatzen zuten animaliak ziren hemen bizi zirenak.

Ikerketa horren ondorioz argitara ziren albisteetan esaten zen animalia misteriotsua zela agirietan «tigre» edo «leopardo» izenez aipatzen zen hori eta ez zegoela deskripzio garbirik ziur zein espezietakoa zen jakiteko... Ikerketari esker lortu omen genuen, beraz, hutsune hori betetzea. Bada, Iztuetaren deskripzioa ezin garbiagoa da. Katamotza dela diosku, eta, gainera, «iruroguei ta emezortzi libra» pisatzen zituela, hau da, 36 kg inguru. Gauza garbia da, pisu horrekin, ipar katamotza bakarrik izan zitekeela, Iztuetaren itzultzaileak, Joxe Lasak, irakurri nahi dionarentzat, zuzen ondorioztatu zuen bezala (1975, 612. or.):

«Parece ser el tigre común o europeo, que existió en nuestras altas montañas.»

Berriro ere esan daiteke, beraz, euskaraz idatzia zegoena irakurri izan balute, beharbada lehentxeago iritsiko zirela ondorio horretara... Euskarazko Wikipedian «ipar katamotza» begiratzen duenak, bide batez, datu askoz gehiago aurkituko ditu animalia honek Euskal Herrian izan zuen —eta duen?— presentziaz. Murumendi inguruan ere animalia hori bizi izan zela ez dago dudarik, eta, hori jakinda, inguru hartatik paseoan dabiltzanek, arbolen artean katu handiren dabilela iruditu zaiguz gero, beharbada korrika hasteko gogoa sentituko dute, eta Marimurumendikoek, berriz, korrika doazela, autosugestio bidez-edo atzetik horrelako «katu txiki» bat segika dutela sinestera iristen badira, zeinek daki, «motibatu» egingo dira eta markaren bat hautsi ere egin dezakete.

Edo, besterik gabe, Murumendi aldean ibiltzen garen guztiok iraganean hura nolakoa zen, inguru hartan zer zegoen eta zein zebilen ezagutzeak, leku honetan edo hartan zer gertatu zen jakiteak, inguruaz gehiago gozatzen lagunduko digu.

Ondo pasa festak.

■

Aranburu
1917
OINETAKOAK • BEASAIN

Idatzi dena eta gertatu zena

ELI AGIRRE, JOSE RAMON ANUNZIBAI, IMA AUZMENDI,
JOAN JOSE LASA, ANDONI SARRIEGI ETA MAITE SUKIA

Beasaingo Udalak argitaratzen duen BEASAINGO PAPERAK sortaren barruan, 23.zenbakiarekin, Jose Zufiaurre Goiak idatzitako Irakaskuntza Beasainen izeneko liburua argitaratu zen 2015eko urrian. Liburuak, Beasaingo irakaskuntzaren eta ikastetxeen berri ematen du.

Liburu horretan, 132. orrialdean, honako hau dio:

"1993. urtean, talde batek Lizeoa irakaskuntza publikoari emateko bideari ekin zion: gorabeherak izan ziren irakasle-talde eta guraso-talde batzuen artean, eta, ondorioz, bilerak egin ziren jarrerak hurbiltzeko.

Ez ziren akordio batera iristen eta auzitegietara ere jo zuten apelazioekin eta guzti; baina azkenean, 1997ko ekainaren 15ean, Alkartasuna Lizeoa Ikastola publizikatu egin zen, Eusko Jaurlaritzaren esku geratuz, gurasoen banaketarekin.

Gertaera harekin, Beasainen Batxilergoa eskaintzen zuten bi zentro publiko zuden. Alkartasuna Lizeoa eta Txindoki Institutua, jada Eusko Jaurlaritzarena zena. Hori dela eta, 1998. urtean, batzeprozesu bat hasi zen eta, hurrengo urtean amaitu zen Txindoki Alkartasuna izenarekin.

ANDRAMENDI IKASTOLAREN SORRERA

Ados ez zeuden 130 ikasleren gurasoek, Andramendi izeneko Ikastola pribatu bat irekitzea erabaki zuten eta 1996-97 ikasturtean sortu zen, geroago Andramendi Kooperatiba sortuz Urbialde plazako lokaletan.

ANDRAMENDI IKASTOLA BERRIA

Azkenean, 1997ko ekainaren 15ean, Alkartasuna Lizeoa Ikastola publiko izatera pasatu bazen ere, Eusko jaurlaritzaren menpe, aspalditik zetorren eztabaida zen. Gauzak horrela, helegiteak eta helegiteen aurkakoak egon ziren epailetzan.

Eta ikusi zenean administrazioaren esku geratuko zela, Alkartasuna Lizeoa Ikastola publikoa izatearen alde ez zeuden 130 ikasleen gurasoek, ikastola pribatu propioa irekitzea erabaki zuten eta Andramendi izenarekin. 1996-97 ikasturtean sortu zen Urbialde Plazako lokaletan, ondoren Andramendi Kooperatiba sortuz."



Beno, gertaerak horrela kontatuz gero, borobila karratu ere bihur daiteke. Ez genukeen sekula pentsatu ere egingo, Beasainen ikastolaren sortzaile izandako guraso batek gertakari haietaz horrelakorik idatz zezakeenik, baina bai, horrelaxe laburbilduta dago ikastolek Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan jasandako erasorik nagusienak Beasainen izandako ondorioa eta hori, onartezina da.

2018 urteko lehen kontzertua, etzen nolanahikoa izan. Martxoak 18an Mozart-en Requiem-a eskeini genuen Conductus Ensemble-arekin, guztiok Andoni Sierra-ren zuzendaritzapean.

Beasaingo Udalaren eta Kutxaren laguntzari esker, ordurarte Beasainen zuzenean sekula eman gabeko obra handia gozatzeko aukera izan zuen, Andre Mari Zeruratuaren parrokia lepo bete zuen entzulegoak.

Eliza dotore argiztatuak, abesbatzak ilusioz gainezka eta orkestra ezin hobeak, Jone Martinez Sopranoa, Adriana Mayer Mezzosopranoa, Iñigo Vilas Tenorea eta Jesus Garcia Arejula Baritonoa lagundu genituen, denbora askoan gogotik joango ez zaigun kontzertua eskeiniz.

Sarreren bitartez bildu zen diruaren erdia, Atzegi elkarteari eman zitzaion.

Maiatzean, Musika Eskolak antolatzen duen Kantaldian eta Loinatzei hasera ematen dien Mariren Jetxieran parte hartu genuen.

Ekainaren 30ean Gasteizko Jesus Guridi Kontserbatorioan eta Uztailak 1ean Donostiako Musikenen, EIO Gazte, Euskadiko Ikasleen OrkestrarekinGuridiren Eusko Irudiak eskeini genituen. Gurekin batera, Euskeria eta Euskal Herriko Gazte abesbatzak aritu ziren, Txaber Fernandez Martinek zuzenduta.

Urriaren 20ean, KALAKAN Iparraldeko hirukote famatuarekin batera, Euskal Musika kontzertua eskeini genuen Andre Mari Zeruratuaren parrokian.

Pierre Sangla, Jamixel Bereau eta Xan Errotabeherek osatutako taldeak, giro berezia sortu zuen kontzertuan zehar, sinpletasuna, elegantzia eta emozioa uztartuaz. Ondorengo egitarauan adierazten den moduan, kontzertu bukaeran, 4 kanta eman genituenelkarrekin, xarma eta indarrez beteak.

LOINATZ ABESBATZAK

Ametsetan……..……(J. Busto)
Kristalez Inguratuta……(E. Ugalde)
Biolin musikaz……(Oskorri – Mold. D. Azurza)
Martxa baten lehen notak……(M. Laboa)
Axuri Beltza……(Herrikoa – Mold. J. Busto)

KALAKAN

KALAKAN ETA LOINATZ ABESBATZAK

Bi kanta eta dantza bat-etik, Arrosarik ez da eta Dantza……(X. Sarasola)
Kantuz……(J. Mendiague – Mold. Kalakan)
Euskal Jokoak……..…..(J. Busto)
Sagarra jo!……..……(Herrikoa – Mold. Kalakan)

Urriak 31n, Tolosako 50. Abesbatza Lehiaketan parte hartzera etorritako "The Salt Lake Vocal Artists" talde Estatu Batuarra entzun ahal izan genuen San Martingo basilikan. Talde hau, 50. ekitaldira gonbidatuak izan ziren gainetiko abesbatza guztiak bezela, aurreko ekitaldi batean Tolosan saridun suertatu zen. Kontzertu bikaina eskeini ziguten, beltz espiritual bereziki hunkigarriak kantatuaz.

Azaroak 3an, eta Tolosako 50. Abesbatza Lehiaketaren ospakizunen barruan, David Fanshawe britaniarrak konposatutako "African Sanctus"-a abestu genuen Tolosako Leidor aretoan. Gurekin batera aritu ziren Ordiziako Oroith eta Tolosako Hodeiertz abesbatzak, guztiok Enrike Azurzaren zuzendaritzapean. Obra hontan, abesbatza eta musikoen jardunaz gain, Fanshawek 60-ko hamarkadan Afrikako zenbait herrialdeetan grabatutako kantu eta musika herrikoiak tartekatzen dira. Bakarlariak, hurrengoak izan ziren:

Ana Otxoa, soprano

Iraide Ansorena eta Carlos Sagi, perkusioa

Mustafa Tamsna, Afrikar perkusioa

Mikel Romero, kitarra elektrikoa

Amaia Zipitria, pianoa

EGITARAUA

NARAMA

A la nanita nana …..……....(J.R. Gomis – Mold. E. Larter)
O, Holy Night……...…..(A. Adam – Mold. X. Sarasola)
Larrean amoroski…….(T. Biscary – Mold. X. Sarasola)
Cantemos a María…….....……(J. Tony Guzman)
Belengo herri polita..(Austriar doinua – Mold. X. Sarasola)

LOINATZ

Glow ……..…(E. Whitacre)
Schedryk……..(M. Leontovich)
Serenity ……...…(O. Gjleilo)

NARAMA ETA LOINATZ

Horra Mari Domingi…….(J. M. Usandizaga)
Antton eta Peru ……..(X. Sarasola)
Hator hator ……..(X. Sarasola)

2018 urtea amaitzeko, Abenduak 16ean Gabonetako kontzertua eskeini genuen Andre Mari Zeruratuaren parrokian, Narama Abesbatzarekin batera.

Oier Delgado Saxofoian, Maddalen Sarasola flautan, Martin Kortaberria biolinean, Beatriz Orbea akordeoian eta Arantxa Gastesi pianoan izan genituen laguntzaile.

Aipatzekoa da Xabier Sarasolaren "Antton eta

Peru" izeneko kanta estreinatu zela kontzertu honetan.

Amaitu baino lehen, idazlan honen izenburuaren aldamenean ikusi dezakezuen abesbatzaren logo berria ere aipatu nahi genuke, taldearen irudia berritze aldera, Unai Altolagirrek sortua.

Hauxe izan da ba, azken bi urteetako kronika laburra. Emanaldi eta ahaleginez betea. Aurrerantzean ere, zer edo zer egingo dugu, kantatzeko gogorik etzaigu falta eta!

Zurekin abestea gustatuko litzaiguke, asteazkenetan 20:30etan Musika Eskolan.

■

TXILIBU TXOF
BEASAINGO AISIALDI TALDEA
txilibutxof.blogspot.com

Azken urteko kronika iruditan

UDALEKU LABURRAK, EKAINEAN
Ekainaren 29tik uztailaren 6ra ospatu ziren, Beizaman. Ur jolasak, gaubelak, dantzaldiak... antolatu ziren partehartzaileen gozamenerako

NEGUKO EGONALDIA, URTARRILEAN
Gehienetan eguberri-oporretan antolatu izan bada ere, urtarrilaren amaierarekin iritsi zen aurtengoan Beizamako Legarrategi baserriko neguko egonaldia. Talo eta gaztain festarekin, jolasekin eta dantza eginez egin genion aurre eguraldi euritsuenari.

DANTZAOKEA, LOINATZETAN
120 partehartzailetik gora izan zituen herriko gaztetxoak protagonista diren festa honek.

ERREGEEN ZAMALKADA, INOIZKO JENDETSUENA
Ia 300 partehartzaileren muga gainditu zuen ekitaldiak. Txilibutxof, Herriak Elkarlanean, Loinatz Musika Eskolako banda eta trikitixa taldea, Goizeresi Txistulariak, Koskola Txaranga, San Martingo Katekesia eta Kantujira taldearen elkarlanaren fruitua izan zen eguberri jaien ohiko egur-ekitaldi magikoa.

Bareak Merkatari Elkartea

Aurtengoan ere hemen gaituzue, Beasaingo Loinazak ospatzeko gogo handiarekin. Tradizioari jarraituz, gure erakusleihoak apainduko ditugu festetan murgiltzeko.

Gure presentzia aldizkari honetan hausnarketa txiki bat egiteko aprobetxatu nahi dugu. Erosketak egitea gure eguneroko jarduera da eta askotan ez gara ohartzen gure erabakiek duten eraginaz.

Beasaingo denda batean erostea erabakitzen dugunean tokiko ekonomia sustatzen dugu. Izan ere gure herriko dendetan inbertitzen dugun dirua herritik zirkulatzen jarraitzen du, gure inguruko oparotasun ekonomikoaren alde eginez. Herriko merkataritzaren irabaziek gure alde itzultzen dira, herriko pertsonen eta familien artean banatzen baitira eta ez enpresa handietan.

Bestalde, dendek pertsonalitatea ematen diegu Beasaingo kaleei. Kaleak jendez betetzen ditugunez hauek seguruagoak eta biziagoak dira. Gainera, gure gizarte harremanetan garrantzi handia dugu dendak pertsonen topaleku gara eta.

Kontsumoa botere handiko erreminta da zein herri mota nahi dugun erabakitzeko orduan. Beasaingo merkataritzan erostea erabakitzen dugunean Beasain bizia, bidezkoa den merkataritza duena eta bidezko gizarte egoera lortzen laguntzen ari gara.

Horregatik gure bezeroei mezu hau helarazi nahi diegu: ESKERRIK ASKO BEASAIN AUKERATZEAGATIK.

Aquí estamos los comercios de BAREAK, un año más, con muchas ganas de celebrar los Loinazes. Siguiendo la tradición, hemos decorado nuestros escaparates para sumergirnos de lleno en las fiestas.

Queremos aprovechar estos días de fiestas y nuestra presencia en esta revista para reflexionar un poco. Ir de compras es una de nuestras actividades más cotidianas y muchas veces no somos conscientes de lo que implican nuestras decisiones.

Cuando elegimos comprar en un comercio de Beasain, estamos contribuyendo a dinamizar la economía local, ya que el dinero que invertimos en las tiendas de nuestro pueblo sigue circulando por el mismo, contribuyendo a la prosperidad económica de nuestro entorno próximo. Ese beneficio, revierte en nuestro favor redistribuyéndose a personas y familias cercanas, no a grandes empresas.

Además, con nuestra presencia damos personalidad a las calles de Beasain. También las llenamos de gente, haciendo que estén vivas y sean más seguras. Asimismo jugamos un papel importante en nuestras relaciones sociales, ya que somos lugares de encuentro.

El consumo es una herramienta de gran poder a la hora de elegir qué pueblo queremos y cuando elegimos comprar en el comercio de Beasain estamos contribuyendo a lograr un Beasain con vida, comercialmente justo y socialmente equitativo.

Por ello queremos lanzar un mensaje a nuestros clientes: GRACIAS POR ELEGIR BEASAIN.

BAREAK
MERKATARI ELKARTEA

BAREAKEKO SALTOKI ETA TABERNEK JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

ABIO BIDAIAK
ALZUARAN
AMETS DESCANSO
ANDREAK JANTZIAK
ANITZ
ARANBURU OINETAKOAK
ARGI OPTIKA
ARKU
ARNEDOKO TXOKOA
ARTEKA
ASEPLAN
BAMBORA EDERTASUN NATURALA
BARANDIARAN ZERAMIKAK S.L.
BASAKANA TABERNA
BERECIARTU
BIDELUZE
BIOK
BOCA BOCA
BODEGA RIOJANA
CORTES
DANTZAKI ESKOLA
EDER ALTZARIAK
EGUZKI INPRIMATEGIA
EKI HAUR OINETAKOAK
FARMABI PARAFARMAZIA
FOTO ALZURI
FOTOETXE
GASGARIN
GASOGAS OLABERRIA
GOIERRIKO HEDABIDEAK
GOIERRISAT
HAZIA LORADENDA
HERBORISTERIA NATXO DIETETIKA
IPOTX
ITOIZ
J.M. IMAZ
JAUREGI OPTIKA
JOYERIA IMAZ
JUPITER HAUR ARROPA
KILIMAK JOSTAILU HEZITZAILEAK
KIXKUR PELUQUERÍA
KULUSKA
KUX-KUX
LABORES OTEA
LAIN Estilistak
LIRAIN LURRINDENDA
MERTZERIA MIRARI
MIGDÄLA
MUJIKA TXIRRINDUAK
MULTIOPTICAS
NAGUSI OPTIKA
NAIRATI
NEU ALBAITARITZA
O-BI OINETAKOAK(OSKARBI)
OLANO CARNICERIA
ORKI
OTXOA D`ALAIZA THE BACKSTAGE
PERGOLA
PHUKET
PIZZA SPRINT
PLAZAPE TABERNA
POLLO SPRINT
RAINBOW
SANEAMIENTOS ANTONIO ELOSEGUI S.L.
T.P.T. BEASAIN
TRUK
TTI-TTA
TXINDOKI ALTZARIAK
UDABERRI
VICUÑA SPORT
XALO
XERBERA
YAÑEZ BITXITEGIA
YS HARRIAK ETA OSAGARRIAK

Usurbe elkarteak 100 urte!!



AITOR MENDIA

Ospakizun urtea da hau Usurbe Elkartean! Dokumentu ofizialik ez badago ere, elkartearen sorrera 1919. Urtean kokatzen da. Geroztik hamarkada asko pasa badira ere, bizirik dirau eta indartsu iritsi da mendeurrenera.

Dokumentu ofizialik ez topatzea ez da kasualitatea; izan ere 1953. Urteko uholdeek Zubimendi Plazan kokatuta zegoen eraikina botatzearekin batera, dokumentuak ere galdu egin ziren. Gertakizun horrek, ordea, ez zuen elkartearen gainbehera ekarri eta garaiko kideek tokialdaketa gauzatzea erabaki zuten, egun kokatua dagoen Iturralde Plazara.

Aipatzekoa da Gipuzkoako lehenengoetako elkarte gastronomikoa izan zela eta Beasaingo lehena. Ahoz aho jasotako historietan aipatzen da, garaiko Donostiako elkarteetan inspiraturik sortu zela, bai eta elkartearen sorreran Feliciano Arizmendik garrantzia handia izan zuela ere.

Hala ere, aurrez aipatu bezala, bizirik eta sasoi onean jarraitzen duen elkarte bat da. Horren adierazle nagusi da, egun, 50 kidez osatua dagoela; horien artean 8 emakumeak. Hots, garaiarekin batera eraberritzeko gai izan den elkarte bat da eta horren adierazle da 2007. Urtetik aurrera emakumeek kide izateko eskubidea lortu dutela.

¡Este es un año de celebración para la Sociedad Usurbe! Aunque no haya ningún documento oficial, la apertura de La Sociedad data del año 1919. Desde entonces han pasado varias décadas, pero sigue con vida y ha llegado con fuerzas a su centenario.

No es casualidad que no exista ningún documento oficial, puesto que las inundaciones del año 1953 afectaron al edificio ubicado en la Plaza Zubimendi, y con él, todos los documentos que se encontraban en su interior. Sin embargo, este suceso no marcó el final de la sociedad gastronómica y los socios de aquella época decidieron trasladarse al actual edificio que se encuentra en la Plaza Iturralde. (Foto: día del socio 1942 en Garin)

Es de mencionar, que Usurbe es de las primeras sociedades gastronómicas de Gipuzkoa y la primera de Beasain. Según lo que se ha podido recopilar mediante la historia oral, la sociedad se inspiró en las sociedades de aquella época de Donostia, y tuvo gran relevancia Feliciano Arizmendi a la hora de su creación.

Tras este breve repaso a su historia, es pertinente subrayar que tal y como se ha mencionado anteriormente, es una sociedad que sigue viva. Muestra de ello es que hoy en día cuenta con 50 socios, de los cuales 8 son mujeres. Y es que ésta es una sociedad que ha sabido adaptarse al paso de los años, y como no podía ser de otra forma, desde el año 2007 las mujeres pueden ser socias de pleno derecho. (Foto: día del socio 2003)

El presente es consecuencia del pasado, y lo que suceda hoy marcará el mañana. En el caso de La Sociedad se prevé un futuro espléndido, y clara muestra de ello es que últimamente se

Iraganera begiratuz oraina uler daiteke eta orainari erreparatuta etorkizuna. Elkartearen kasuan etorkizun oparo bat aurreikus daiteke, azken boladan kide gazte berriak gehitu baitira. Belaunaldien arteko trukea ere elkartearen aberastasunetako bat dela ulertuz, guztien artean aisia ulertzeko era alternatibo bat sortzen jarraitzeko asmoz, eta elkartearen bizi luzea ospatzeko asmoarekin, ekainaren 22rako ospakizunak prestatzen dabiltza buru-belarri.

han incorporado varios jóvenes a la lista de los socios. Ésta es una gran noticia sin lugar a dudas, puesto que en La Sociedad Usurbe se entiende la relación intergeneracional como un valor a destacar. Por todo ello, con la intención de seguir creando una forma alternativa de entender el tiempo libre, y con la intención de

celebrar el centenario, los socios están organizando las celebraciones que tendrán lugar el 22 de junio.

NUÑEZ/BENGOETXEA
Cortinas y colocación / Telas a peso
Joan Iturralde 11 - Telefonoa: 943 16 12 29 - Faxa: 943 88 41 84 - 20200 Beasain
jose.nunez@allianzmed.es

Urteko ahotsak

Urtebete honetan, era batera edo bestera, protagonista izan diren beasaindarren hitzak daude ondorengo orrialdeetan. Elkarrizketak oso-osorik goierri.hitza.eus eta goiberri.eus webguneetan irakur daitezke.

Hilario Urretabizkaia. Udaltzainburu ohia

"Hobeto lo egiten dut orain, lasaitasun hori nabaritu dut".

2019ko urtarrilaren 2a izan zuen azkeneko lan eguna Hilario Urretabizkaia udaltzainburuak (Beasain, 1957), Kepa Amundarain eta Kepa Apalategi udaltzainek bezala. Iker Barriocanal beasaindarrak hartu du du udaltzainburuaren lekukoa.

Zer moduz jubilatutako lehenengo egunak?

Hobeto lo egiten dut orain, lasaitasun hori nabaritu dut. Adura edukitzeak asko markatzen zaitu, beti adi zaude eta. Nahiz eta egitura ona eduki barruan, eta egia esan ez daukat kexatzerik, beti daukazu kezka bat.

Kosta egingo da kalean udaltzain begiekin ibili beharrean herritar arruntaren begiekin ibiltzea?

Gehiago kostatzen ari zait, bai. Zalantzarik ez dago, herritar bezala ere, zerbait gaizki ikusten badute, esango nukeela.

Ibane Imaz. Transexuala

"Gogoa neukan, nik bizi izan dudana eta sentitzen dudana lehenengo pertsonan kontatzeko, jendeak hobetu ulertu nazan"

Zakilarekin jaio zen Ibane Imaz (Beasain, 1991), baina neska sentitu izan da beti. Honela, 15 urterekin hormonak hartzen hasi zen, 16 urterekin izena eta nortasuna aldatu zituen eta 18 urterekin ebakuntza egin zioten. Gaur egun emakume zoriontsua bada ere, bidea ez da erraza izan Imazentzat.

Zure egoeraren berri zure amaren eta ahizparen bidez gizarteratu da.

Bai, gogoa neukan, nik bizi izan dudana eta sentitzen dudana lehenengo pertsonan kontatzeko, jendeak hobetu ulertu nazan. Ezagutzea eta entzutea oso garrantzitsua da, hobeto enpatizatzeko.

Zer aldatu da Ibane Imazengan pauso hau emateko?

27 urte ditut dagoeneko eta oraintxe bertan segurtasun handia daukat nigan; badakit nor naizen, berdin zait jendeak epaitzea. Elkarrizketa hau aukera ona da jendeak ni hobeto ezagutzeko. Nire barruan zer aldatu den? Nik uste dut asko aldatu dela.

Gizarteak ere aurrerapausoak egin ditu?

Bai, lehen beste garai batzuk ziren. 12 urterekin hasi nintzen emakumez janzten. Harrezkeroztik urte asko pasatu dira eta asko nabaritzen da. Orain babes handiagoa dute gazteek, irekiagoak dira, eskoletan landu egiten dira gai hauek eta lehen ez...

Angel Oiarbide. Gure Esku Dago

"Ohore bat izan da horrelako mugimendu bateko ahotsa jartzeko aukera izatea".

Angel Oiarbide goierritarra Gure Esku Dago (GED) dinamikaren aurpegia izan da sorreratik, Zelai Nikolasekin batera. Orain, GEDen etapa berriarekin batera, lekukoa hartuko diete bozeramaile berriek. Martxoaren 13an jakinarazi zuten erabakia.

Gure Esku Dagok atzo iragarri zuenez, orain arteko bi bozeramaileok, zuk zeuk eta Zelai Nikolasek, bozeramaile izateari utziko diozue. Zergatik?

2013ko ekainaren 8an GED hasi zenean ardura bat hartu genuen bozeramaile bezala. Guretzat ohore bat izan da horrelako mugimendu bateko ahotsa jartzeko aukera izatea. Baina etapa berri bat hasten da GEDrentzat eta ikusten genuen etapa berriarekin jende berria behar zela. Zelai eta biok GEDn geldituko gara, idazkaritzan geldituko gara, baina bozeramaile berriak izango ditu etapa berriak: Amalur Alvarez eta Josu Etxaburu.

Zein sentimendurekin uzten duzu?

Oso pozik. Urte hauetan mugimendu honen bitartez bizi izan ditugun sentimenduak oso indartsuak dira. Hau entsegu bat dela esaten dugu, eta entsegua da batez ere, hasi garelako sentitzen elkarrekin zer egitera iritsi gintezkeen. Esan genuen Gure Esku Dago ez zela lelo huts bat, jarrera bat zela. Bost urte hauetan pausoak ematen aritu gara, elkarrekin zer egiteko gai izan gaitezkeen ikusten eta sentitzen.

Andoni Mikelarena eta Leire Barandiaran Korrikako koordinatzaileak

"Euskaraldian jende askok egin du klik, eta Korrika jarraipena da, egindako aukera sendotzeko urrats bat"

Bi urtean behin Euskal Herria korrikan zeharkatzen duen euskararen aldeko lasterketa, apirilaren 13an, 07:00etan iritzi zen Beasainera. Jendetza elkartu zen Beasainen Euskal Herriko euskararen aldeko lasterketa erraldoian.

GoierrikoKorrikaren koordinatzaileak zarete. Zein sentimendurekin hartu duzue lan berria?

Leire Barandiaran. Errespetuz. Korrikak daukan ibilbidea ikusita, errespetu pixka batekin.

Andoni Mikelarena. Nik uste dut oraindik ez dugula oso ondo barneratu zein saltsatan sartu garen. Korrikak ekarriko digun lan karga, ikasgai eta esperientzia hori guztia ez dugula oraindik neurtzen. Gogotsu gaude.

Klika da Korrikaren leloa, euskararen aldeko aukera egiteko.

Barandiaran. Euskaraldian jende askok klik bat egin du. Gauza askotaz konturatu da eta nik uste dut Korrika jarraipena dela, egindako aukera sendotzeko beste urrats bat.

Mikelarena. Korrikak ere badu beste osagai bat: Euskaraldia nahiko pertsonala zen, konpromisoa norberarena zen, baina Korrika konpromiso kolektiboago bat da, esperientzia kolektiboagoa bihurtzen dugu. Azken finean, banan-banan egiten ari diren klik guzti horiek Korrikan egingo dute bat. Konpromiso txiki horien batura izango da Korrika.

Justo Mujika eta Carol Diez Osasun Zentroko koordinatzaileak

"Beasainen eta Goierrin, alkohol kontsumoan nabarmentzen gara, goitik gaude; batez ere, emakumeak"

Beasaingo Osasun Zentroko arduradunak dira Justo Mujika eta Carol Diez. Jarduera fisikoarekin batera, indar ariketak eta buruko ariketak egunero egitea da beraien osasun errezeta nagusia: «Jarduera fisikoa, mahaiaren gainean eduki beharko genukeen pastilla miragarria da. Adin guztietako pertsonentzako da ona eta beharrezkoa da ariketa fisikoa egitea. Indartzeko ariketek oreka mantentzen laguntzen dute. Muskuluak ondo edukita, oreka hobeto mantentzen da eta erorketak saihestuko dira».

Orokorrean, zein da goierritarren osasun egoera?

Justo Mujika: Baliabide aldetik ondo bizi garen

eremuan bizi gara: lan arloari dagokionean, sozial arloan... ondoen kokatuta dagoen eskualdea da Goierri. Baina Eustatek egiten dituen osasun inkestak egiten dituenean, beti badago datu bat nabarmentzen dena: Beasainen eta Goierrin, alkohol kontsumoan nabarmentzen gara, goitik gaude. Batez ere, emakumeak nabarmentzen dira. Azkeneko inkestetan errepikatzen den joera da; gainerako gaietan besteen parean gaude. Ziurrenik, heldu egin beharko zaio gaiari.

Zergatik izan daiteke hori?

Justo Mujika: Arlo soziala, ekonomikoa, berdintasun portaerak...

Carol Diez: Pintxo potea...

Zeintzuk dira osasun arazorik ohikoenak?

Justo Mujika: Arrisku faktore kardiobaskularrak, tentsioa, koipeak, diabetesa... Eta adinarekin minbizia. Gehitzen ari da minbizia, urte gehiago bizitzearen ondorioz. Gure organismoak zelula txarrak sortu ahal izateko gaitasun hori du.

Urtzi Arrondo
Futbol entrenatzailea

"Aurrera urrats bat gehiago egiteko aukera da Gernika entrenatzea"

Guztira 22 urte egin ditu Beasain taldean Urtzi Arrondok (Beasain, 1980), jokalari, bigarren entrenatzaile eta entrenatzaile gisa. 2014. urtean Hirugarren mailako Beasain taldea entrenatzeko ardura hartu zuen. Gernika taldearen deiari erantzunez, 2. B mailan entrenatzeko urratsa egitea erabaki zuen Arrondok 2018ko ekainean.

Beasain taldea uztea erabaki duzu. Zergatik?

2. B mailako Gernika taldea entrenatzeko aukera mahaiaren gainera etorri zitzaidan eta nire ustez ezin nion ezetzik esan. Zerbait gehiago egiteko aukera daukat entrenatzaile bezala. Pena hartu dut bidean utzi dudanagatik, Beasain nire taldea delako. Baina nik uste dut aurrera urrats bat gehiago egiteko aukera dela. Sekulako ilusioa egin dit, aldaketekin gustura nago.

Zein zaporerekin zoaz Beasaindik? Aurten ez duzue 2. B mailara igotzeko kanporaketa jokatzeko posturik lortu. Ondo hasi zenuten denboraldia baina azkenerako luze egin zaizue denboraldi hori.

Pena handia ematen du Beasain uzteak, azken batean familiako parte izan delako, eta horrela izaten jarraituko du, ez futbolean lortutakoagatik, baizik eta egindako lagunak hor daudelako. Pausoa ematea kosta egiten da baina nik uste dut ulergarria dela denontzat aukera aprobetxatzea. Inoiz ez dut aterik itxi nire betiko taldean. Oso eskertuta nago taldearekin, eta hau ez da behin betiko agur bat. Edozein gauzatarako laguntzeko prest egongo naiz.

Ane Etxezarreta.
Realako jokalaria

"Reala lehenengo aldiz Erreginaren Kopako finalean sartzeak plus handi bat ematen die bai klubari bai inguruko taldeei"

Bilboren aurkako derbia eta Sevillaren aurkako Erreginaren Kopako final erdia Anoetan jokatu zituen martxoan Realak, eta maiatzaren 11n Granadan, Erreginaren Kopako finala Atletico Madriden aurka. Ane Etxezarreta (Beasain, 1995) izan da tartean. Beasain futbolean jokatzen hasi eta Oiartzun taldean jokatu ondoren, Realeko hamaikakoko parte da beasaindarra.

Finala jokatzea garrantzitsua izango da Euskal Herriko eta Gipuzkoako emakumeen futbolarentzat.

Oso garrantzitsua izango da, bai Realarentzako eta bai Gipuzkoarentzako, eta batez ere atzetik datozen jokalarientzat. Reala lehenengo aldiz finalean sartu ahal izate horrek plus handi bat ematen dio bai klubari bai inguruko taldeei.

Azkeneko asteetan emakumezkoen futbolak urrats bat egin du gora? Inflexio puntu bat izan da?

Nik uste dut baietz, eta ez bakarrik Euskal Herrian, Espainia mailan ere bai. Egia da oso momentu puntualetan izaten direla partidak

zelai handietan. Datorren igandean bigarren aldiz jokatuko dugu Anoetan eta ez dakit Espainiako beste talderen batek bi aldiz jokatuko zuen zelai handian. Egia da, Espainia mailan inflexio puntu hori ematen ari dela. Eta nik uste dut hori aprobetxatu behar dugula, lana egin beharra baitago. Lan asko dago egiteko.

Aitor Garmendia
Korrikalaria

"Txindoki 13 aldiz igo eta jaistea lortu dut 23 ordu eta 12 minutuan"

2008an hasi zen Aitor Garmendia korrika, kuadrillako batekin Beasaindik San Migelera arte egindako apustuaren ondorioz. «107 kilo nituen orduan; irabazi egin nion». Harrezkeroztik, 2009an Goierriko Bi Handiak egin zuen eta 2010etik hona, urtero, Ehunmilak. 2018ko irailaren 29an, berriz, beste erronka bati heldu zion: 24 orduan Txindoki 13 aldiz igo eta jaistea. Patxi Caminosek 2010etik zeukan marka hobetzea. Baita lortu ere: 13 aldiz igo eta jaitsi zuen Txindoki, 23 ordu eta 12 minutuan.

Zenbat kilometro dira guztira? Eta desnibela?

Asko da, ia 100 kilometro. 13 joan-etorri eginez gero 99,45 kilometro, eta 12 eginez gero 91 kilometro. Desnibel positiboa, berriz, 12 aldiz eginda 11.500 metro eta 13 aldiz eginda 12.400.

Korrika edo oinez egiteko asmoa daukazu?

Behetik gora oinez joango naiz, noski, eta beherakoan korrika txikian. Erritmo bat hartu eta hortxe jarraitu behar.

Zein ordutan hasiko zara?

Arratsaldeko 18:00etan. Nahiago nuen egun argi gehiagorekin egitea. Entrenatu nuenean, gaua asko harrapatu nuen eta eguna gutxi. Egun argitan askoz ere hobeto ikusi nintzen.

Eneko Elosegi
Ironmana

"Normal baldin banago, urtean lau Ironman egiten ditut"

2007an egin zuen zuen lehenengo Ironmana Eneko Elosegik (Beasain, 1983) eta dagoeneko 30etik gora egin ditu. Erdietan baino gehiagotan lehenengo hamar postuetan geratu da. 2017. urtean "istripu tonto" bat eduki eta lepoa puskatu bazuen ere, urte bereko azaroan, Malaysiako Ironmanean hamargarren egin zuen. Iaz, Beasain Kirol Sari Nagusia jaso zuen.

Noiztik zabiltza triatloian?

2006-2007an hasi nintzen triatloian. Aurretik bizikletan ibiltzen nintzen, 11 urtetik, 19-20 urtera arte, Beasaingo taldean. Afizionatuetan Iberdrola taldean aritu nintzen. Gero unibertsitatera joan nintzen arkitektura teknikoa ikastera eta urte batzuetan utzi egin nion lehiari. Baina hainbeste urtetan lehiatzen arituta, faltan botatzen nuen; orduan, triatloian hasi nintzen.

Txirrindularitzari, igeriketa eta korrika gehitu zenizkion.

Bai, beti gustatu izan zait. Txirrindularitzan nenbilenean beti ikusten nuen Hawaiko Ironmana. Egunen batean gustura joango nintzela pentsatzen nuen.

Urtean zenbait Iromnan egiten dituzu?

Normal baldin banago, lau. Hiru-lau hilabete behar dira errekuperatzeko.

Amaiur Mariezkurrena

"Ezustekoa izan da euskal selekziorekin Espainiako txapelketara joatea"

Igartza Txindoki Tim igeriketa taldeko igerilaria da Amaiur Mariezkurrena (Segura, 2006). Martxoaren 2an eta 3an Madrilen izan zen euskal selekzioarekin Espainiako txapelketa jokatzen.

Nola hartu duzu euskal selekzioaren deia?

Ezustekoa izan da, ez genuen espero. Lehenengo aldiz joango da Igartza taldetik

igerilari bat euskal selekzioarekin Espainiako txapelketara. 10 neska eta 10 mutil joango gara. Gaur arratsaldean denok batera joango gara autobusez.

Nola sentitzen zara?

Urduri, baina gogoarekin nago.

Zein estilotan eta zein neurritan parte hartuko duzu Espainiako txapelketan?

400 eta 800 metro estiloetan.

Zein duzu helburua?

Sekulako maila dago eta ia ezinezkoa da dominaren bat lortzea, baina dena ematera eta batez ere gozatzera noa, esperientzia hau ez dut inoiz ere biziko. Tope gozatzera noa Madrilera.

Aritz Elustondo. Realeko jokalaria

«Bizitza guztia egongo nintzateke Realean, horixe da nire ametsa»

Ametsak betez jarraitzen du Aritz Elustondo (Beasain, 1994) Realeko futbol jokalariak. Realeko lehenengo taldera iristea izan zen betetako lehenengo ametsa eta dagoeneko 100 partida jokatu ditu, bizkarrean 15 zenbakia duen erdiko edo hegaleko atzelariak. Hurrengo ametsa, bizitza profesional osoa, Xabi Prietok bezala, Realean bizitzea du. Aurten bosgarren denboraldia du Realean.

Abenduaren 17an lau urte bete ziren Realarekin lehenengo partida jokatu zenuenetik...

Bai, Errege Kopako partida izan zen, Oviedoren kontra. Hilabetera, urtarrilaren 14an, Lehenengo Mailan debutatu nuen, 34 zenbakiarekin. Moyes zen entrenatzailea.

Beasainen hasi zinen futbolean, baina berehala lortu zenuen Realaren arreta erakartzea.

Alebinetan Beasainen hasi eta infantiletan entrenamendu batzuk egitera joaten nintzen Zubietara. Kadeteetatik aurrera, Realeko gazteen taldeetan aritu nintzen. Jubeniletako 2. urtean Beasainera itzuli nintzen. Hasieran atzerapauso bezala ikusi nuen, baina ez zen horrela izan: jubeniletatik 2. B Mailara pasatu aurretik, Hirugarren Mailan aritzea oso ondo etorri zitzaidan, aurrerapausoa izan zen heldutasuna lortzeko bidean. Hurrengo denboraldian berriro Zubietara itzuli, ikasketak utzi eta dena eskaini nion futbolari. Zorte handia izan dut lehenengo taldera iristeko.

2022. urtera arte daukazu kontratua Realarekin.

Oso pozik nago. Bizitza guztia egongo nintzateke Realean, horixe da nire ametsa. 28 urte edukiko ditut 2022an eta espero gehiago jarraitzea. Nik nahi dudan gauza bakarra, Realarekin gozatzea da, jokatzea, Realean urte asko pasatzea, eta ahal bada, Xabi Prietok bezalako karrera bat edukitzea.

■

González
Taller de Enmarcación
Espejos enmarcados a medida Láminas impresas en papel fotográfico
Láminas impresas en lienzo Cuadros Lienzos levante
Nekolalde, 22 • BEASAIN • Tel.: 943 882 388

San Silbestre krosa 2018

BATOZRDEA

Aurten modu berezian ireki dugu Beasaingo San Silbestre krosaren atala, izan ere funtsezko berritasun bat izan baita krosaren beraren garapenean. Krosaren historian lehenengo aldiz berdinak izan dira lasterketan parte hartu duten gizonei eta emakumeei eman zaizkien sariak.

Izan ere, 2018ko martxoaren 8ko mobilizazio jendetsuek, non beste aldarrikapen askoren artean lan eta jarduera berdinagatik soldata eta ordainsari berdinak izatea eskatzen baitzen, berdintasuna lortzeko prozesuan aurrera egitea ekarri dute, besteak beste 2018ko Beasaingo San Silbestre lasterketan gizonen eta emakumeen artean sari berdinak izatearena, hala hitzartu baitzuten lasterketaren antolatzaileak diren Beti Bizi elkarteak eta Beasaingo udalak, emakumezkoen nahiz gizonezkoen lehen hamabost sailkatuentzat sari berdinak ezarriz. Zoritxarrez, kirol motaren eta egiten den lekuaren arabera, alde handiak izaten baitira oraindik.

Eta aurrerapenetan alde handiak daudela esaten dugunean, kirol askotako sarietan eta ordainketa ekonomikoetan dagoen aldea izugarria izaten jarraitzen duela esan nahi dugu. Beti Bizi elkartean prozesu hori bultzatu izanaren, tabu bat hautsi izanaren eta gizartearen eskaera

Este año abrimos esta sección del Cross de la San Silvestre beasaindarra de una manera especial, por cuanto se ha producido una novedad fundamental en su desarrollo. La igualdad, por primera vez en su historia de los premios otorgados a las mujeres y hombres participantes en la prueba.

No en vano las masivas movilizaciones del 8 de Marzo de 2.018, exigiendo entre otras muchas reivindicaciones, la igualdad de salarios y retribuciones por el mismo trabajo y actividad, han provocado avances en el proceso de igualdad entre los que se encuentra, la igualdad retributiva entre hombres y mujeres, en la pasada San Silvestre beasaindarra de 2.018, acordada entre organizadores, sociedad Beti Bizi y ayuntamiento beasaindarra, estableciendo la paridad de premios para los quince primeros de las categorías femenina y masculina. Avances, que por desgracia todavía son muy desiguales según en que clase de deporte y lugar se produzcan.

Y cuando nos estamos refiriendo a avances desiguales nos estamos refiriendo a numerosos deportes en los que la desigualdad en la retribución ecónomica y en premios

garrantzitsu eta ozen horri erantzunez 2018ko San Silbestre kroseko ordainketei dagokienean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrerapauso bat eman izanaren poza behintzat badugu.

Aurreko guztia aipaturik eta etorkizunari begira gertaera hori lasterketan sendo bermatutako mugarri modura geldituko denez, jarraian lasterketaren beraren ezaugarri garrantzitsuenak azalduko ditugu ohi bezala.

lazkoa, urteko azken egunean egiten den Beasaingo San Silbestre klasikoaren 45. ekitaldia izan zen. Kros zale handien artean urtetik urtera geroz eta tradizio eta sona handiagoa izaten ari den lasterketa da eta eredugarritzat bilakatu da Espainiako estatuan.

Antolaketa lasterketaren unean uneko premietara egokitzeko borondateari eta ahalmenari esker gainera, lasterketaren antolakuntza osoan hobetu beharreko

sigue siendo abismal. En la Beti Bizi, tenemos al menos la satisfacción de haber impulsado este proceso, de haber roto un tabú y de haber dado un paso adelante en la igualdad entre hombres y mujeres en lo que a retribuciones se refiere en el pasado Cross de San Silvestre de 2018, como respuesta a esta importante y clamorosa demanda social.

Reseñado lo anterior y quedando este hecho ya cara al futuro como un hito consolidado de la prueba, pasamos a describir como habitualmente hacemos, las características más importantes de la misma.

Esta ha sido la 45 edición de la ya clásica San Silbestre beasaindarra celebrada hasta la fecha. Una prueba que cada año acumula más solera y prestigio entre los buenos aficionados al cross y que se ha convertido en una referencia a nivel de Estado Español.

Además, la voluntad y la capacidad de adaptación de la organización a las

alderdiak ezagutu ahal izan ditugu. 2018ko San Silbestre krosa aztertu ondoren, 2019ko lasterketa hobetzeko ondorioak ere atera ditugu.

Maila handiko atletak dituen luxuzko partaidetza ere aipatu behar da, lasterketako garaileen zerrendan Euskadiko, Espainiako eta munduko txapeldunak, gizon nahiz emakumeak, ageri baitira; ez hori bakarrik, amateur eta emakume ugari ere bai, eta horrek apalki poza ematen digu, maila handia izaten jarraitzen duela uste baitugu. Eta beste horrenbeste pozten gaitu zaleen erantzunak, ahalegin guztia egiten baitute partaideak animatuz eta ibilbideko bi aldeak betez.

Lasterketak izan dituen beste berritasunei dagokienean, denbora neurtzeko sistemari dagokiona aipatu behar, korrikalarien oinetakoetan ipintzen zen txipa lekuz aldatu eta orain partaidearen zenbakian ipintzen baita.

Eta atseginkeria errazean erori gabe eta ideia onak eskaini dezaketen pertsona asko daudela kontuan harturik, hemendik eskaera luzatu nahi diegu zaleei kritika onuragarria eginez 2019ko hurrengo ekitaldia hobetzeko beren ekarpenak egin diezaguten.

necesidades del evento en cada momento, nos ha permitido conocer los aspectos en los que mejorar la organización global de la prueba. Del análisis de la San Silbestre de 2018, también hemos sacado más conclusiones para mejorar la prueba en 2019.

También tenemos que hablar de una participación de lujo con atletas de alto nivel, porque no en vano, el palmarés de la prueba cuenta con campeones y campeonas de Euskadi, de España y del Mundo, de numerosos aficionados y de un buen número de mujeres y esto es algo que nos llena de humilde satisfacción por cuanto creemos, que el nivel se sigue manteniendo alto. Y ni que decir tiene la respuesta de los aficionados volcados animando a los participantes y llenando ambos lados del recorrido.

En cuanto a otras novedades de la prueba, citar una que afecta al sistema de cronometraje, porque ha desaparecido el chip que se colocaba en la zapatilla habiéndose ubicado este, en el propio dorsal del participante.

Y sin caer en la autocomplacencia fácil y considerando que hay muchas personas que pueden aportar buenas ideas, desde aquí solicitamos a los aficionados, a que con una crítica constructiva nos aporten elementos

Partaidetzaren datuei dagokienez, esan dezakegu guztira 324 atletek eman zutela izena, horietatik 288 gizon eta 36 emakume, eta herriko atletak 183 izan zirela. Hemendik emakumeak animatu nahi ditugu emakumeen partaidetza etorkizunean handitzen jarrai dezan, gure ustez emakumeen partaidetza garrantzitsua baita gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren bidean aurrera egiteko.

Eta eskerrak emateko garaian, lasterketak orain duen maila lortzea ahalbidetzen dutenak nabarmendu behar, babesleak, iragarki jartzaileak eta udala, bai eta lasterketaren makineria zehatz-mehatz doitua egoteko eta funtzionamendu ezin hobea izateko modu nekaezinean lan egiten duten boluntarioak ere.

para la mejora de la próxima edición de 2019.

En lo que se refiere a los datos de participación, podemos indicar que se inscribieron un total de 324 atletas, de los que 288 fueron del género masculino, 36 del género femenino y 183 fueron atletas locales. Desde aquí animamos a que la participación femenina siga aumentando en el futuro, porque creemos, que esta participación femenina es importante también para avanzar en el camino de la igualdad de géneros.

Y en el capítulo de agradecimientos, destacar a quienes hacen posible que este evento haya alcanzado el nivel que tiene, patrocinadores, anunciantes y ayuntamiento así como a todos los voluntarios que colaboran infatigablemente para que la maquinaria de la prueba esté perfectamente engrasada y funcione como un reloj.

El Aziz Mustapha

Elena Loyo

TOLDOS OLANAK
AGUSTIN
943 88 65 58 - 665 71 95 41
Polg. Zubi-erreka 42 - LAZKAO
www.toldosagustin.com
PRECIOS ESPECIALES PARA COMUNIDADES
AMPLIA GAMA DE SOLUCIONES EN PROTECCION SOLAR

Beasain Kirol Elkartea futbola baino gehiago

BEASAIN KE

Beasain Kirol Elkarteak udalerrian futbolaren ikurra izatea helburu izan du bere historian zehar. Ezbairik gabe, lehiakortasuna eta Gipuzkoa mailan herriaren izena futbola aipatzen den bakoitzean gurea lehenen artean agertzea beti izan da harro sentitzeko moduko motiboa. Garai berriek ordea garbi erakutsi dute kirola eta futbola gure kasuan, lehiatzea baino zerbait gehiago dela. Azken ia 8 urteetan Beasain Kirol Elkarteko zuznedaritza osatzen dugun kideon artean kezka hori zabaldu da eta hortaz jabetuta gizartearekiko kirolak eta futbolak ematen dizkigun baloreei garrantzi gehiago eman nahi izan diogu.

Harrobian oinarritutako elkartea

Behin eta berriz harrobia gogora datorkigun hitza da klubaren egiturari buruz hitz egiten dugunean. Oinarrian Futbol Eskola du Beasain Kirol Elkarteak eta iturri horretatik edaten du txikienetatik helduenetara goitik dauden taldeak elikatzeko. 150 neska-mutil inguru dira denboraldi honetan futbolean hastapenetik hasi direnak.

Berdintasuna eta euskara

Arestian aipatu bezala futbolean formazioa eta hezkuntza dira bi zutabe sendoak. Futbolak eskatzen duen formazioa bai fisikoa eta bai adimenezkoa bateragarriak izan behar dira. Baina hezkuntzak ezin du honen azpitik egon. Futbola balore batzuetan oinarritu behar da eta Beasain Kirol Elkarteak ez du inoiz albo batera utzi gai hau. Adiskidetasuna, elkarlana, joko garbia, elkartasuna, errespetua ... bezalako baloreei bezainbesteko garrantzia eman behar zaie berdintasunari eta euskarari.

Berdintasunaz ari garenean nesken parte hartzeak azken urteetan jauzi erraldoi bat eman du Goierri Gorri emakumezkoen taldearen sorrerarekin. Beasain Kirol Elkarteko zuzendaritzaren konpromisoa erabatekoa izan da talde honen sorreran eta halaxe izaten jarraitzen du. Horretarako beharrezkoak diren bitartekoak ipini ditu, giza baliabideez gain azpiegitura eta baliabide materialak ere. Horren lekuko Loinatz udal futbol zelaiko belar aldaketa. Belar artifizialera udalak egindako aldaketa erabakigarria izan da arlo honetan bere erabilera eta aprobetxamendua handitu delako eta egun ez da hirugarren mailako taldea erabiltzaile bakarra, baizik eta haur, neska eta beste hainbat taldek partiduak jokatu eta entrenatzen dutelako bertan.

Euskararen gaiari dagokionez aurrera pauso nabarmen eta garrantzitsua ere eman du egungo zuzendaritzak. "Euskara oinarritik" deritzon programarekin lanean ari da egun kluba. Eusport enpresaren laguntza eta aholkularitzarekin Koikili Lertxundi Beasaingo jokalari ohia dago buru belarri lan honetan sartuta. Hizkuntzaren erabileran sentsibilizazio kanpaina garrantzitsua ari da aurrera eramaten bizkaitarra eta hori klubaren eguneroko jardunean antzematen ari da. Bai entrenamenduetan, partiduetan, antolatzen diren ekintza paraleloetan eta abar. Aipatzekoa da baita ere klubarentzat aurten ohore bat izan dela Beasaindik pasa den 21. Korrikaren lekukoa Joseba Korta taldekideak eraman izana.

Elkarlana instituzioekin

Egitasmo guzti hauek aurrera eraman ahal izateko ezinbestekoa da instituzioekin etengabe harremanetan egotea. Zer esanik ez hitzarmenek eusten diotela klubaren funtzionamenduari eta hor aurkitzen da ezinbestean Beasaingo Udala. Kalitatezko udal instalazioak izatea kirol elkarte ororen baldintza beharrezkoa da. Aipatu bezala Loinatz futbol zelaiaren aldaketan eguneroko lanean eragin zuzena izan du. Igartza futbol zelaiaren masifikazioak halaxe eskatzen zuen, eta berdintasuna arrazoi hartuta neskek ere mutilen baldintza berdinetan futbolean aritzea ekarri du. Udalarekin urtero berritzen den hitzarmenak beste hainbat alorretan eragiteko aukera ematen du. Aipatu bezala

euskararen aldeko sentsibilizazioan eta honi lotuta formazioan.

Kalitatezko formazioa beharrezkoa zaigulako kirolaren baloreak euskaraz nahi baditugu helarazi haurrei gaztetatik. Kirolene kirol irakaskuntzen erakundearekin lotuko duguna izango da hurrengoa. Beasaingo saskibaloiarekin egin berri den antzera futbolean ere ikuskizun badago ere egitea espero da.

Hitzarmenen gaiari lotuta aipatu Beasaingo Udalarekin elkarteak duenaz gain futbolari hertsiki lotutako beste bi erakunde garrantzitsuekin ere Beasain Kirol Elkarteak dituen akordioak hor daudela. Erreala alde batetik eta Gipuzkoako Futbol Federazioa bestetik. Federazioak 2018an sortu zeneko ehungarren urteurrena bete zuen. Sorrera hartan Beasain Kirol Elkartea egon zen eta bere protagonismoa izan zuen ospakizunetan.

Realarekin elkarlanerako dagoen hitzarmenari esker Gipuzkoa mailan erreferentziazko futbol taldea izaten jarraitzen du Beasain Kirol Elkarteak. Errealean daude egun, hasi lehen mailako taldetik eta gazte mailako taldeetan Beasaindik iritsitako jokalariak, baita nesken taldean nola ez.

Bai Errealarekin eta bai Federazioarekin dagoen elkarlanerako borondateari esker Loinatz udal futbol zelaiaren berrikuntzei jarraipena emango zaie aldageletan egingo diren lanekin. Zelaiaren erabilera handitzeak aldagela gehiago behar izatera ekarri du eta berandu baino lehenago lan horiek hasiko dira.

Lehiaketatik haratagoko ekitaldiak

Egunerokotasunak eta lehiaketak ekartzen duten ohiko dinamiketatik kanpo, zuzendaritza honek azken zortzi urteetan ekarri dituen berrikuntzei erreparatzerakoan badaude aipatzekoak.

Herritarren artean futbolaren afizioa edo zaletasuna zabaltzeko dinamikak ekitaldien bidez eragitea izan da helburu nagusia. Noski, etekin ekonomikoa albo batera utzi gabe, izan ere 11 talde kudeatzeak dakarren gastua ez baita nolanahikoa.

Horregatik, BEFF edo Beasaingo Fubol Festa, Futbol kanpusak eta kromoen bilduma bezalako ekintzak ere lan ugari ematen diote klubeko zuzendaritzari. Eta erantzuna beasaindarren aldetik ezin hobea izan da. Irailean burutzen den Futbol Festaren asteburuan seiehun haur inguru dira atsedenik gabe parte hartzen dutenak Beasaingo plaza nagusian antolatzen diren partiduetan eta ekintza paraleloetan. Futbol kanpusak dira behar bada azken bi urtetan berrikuntza nagusiena; haurrek eskoletako opor garaietan aukera izan dute futbolaz aisialdian gozatzeko; uztailean, abenduan eta aste santu garaian, aldian aldiko izan dira ehunkada bat parte hartu dutenak. Joan den astean esaterako 55 haur izan dira.

Lerro hauetara ekarri nahi izan dena azken batean lehiaketatik, sailkapenetatik eta lorpenetatik haratago Beasain Kirol Elkarteak futbolak eskaintzen dituen onurez gain badela herriari eta gizarte beasaindarrari ematekorik. Beti ere futbola ardatz hartuta, noski, baina baloiari ostikoak emanez ere lehiatuz eta gozatuz. Afizioa, zaletasuna eta adiskidetasunetik.

Partehartze alebina

Errendimenduko alebina

Infantil txikia

Ohorezko infantila

Infantil 1.maila

Kadete 1.maila

Ohorezko kadetea

Juvenil nacional

Ohorezko jubenila

Preferente

Tercera

Motxin

MARIBI SARRIEGI

Maiatzaren 24eanJuanitoren erraustsak Sagastarrin zabaldu zirela, hamabost urte bete ziren . Mendizaleon artean hain maitatua izan zen adiskidearen oroimenez merezitako gogoeta txiki bat egitea da, hain zuzen ere, hitz hauen helburua.

Menditik jasotzen zituen sentsazioak besteoi errez helarazten zizkigun, eta lortu zuen bere helburuetako bat: haurren artean mendizaletasuna sustatzea.

Maitagarria zen inguruko guztiekin, bilobekin batez ere; oso sentibera, edozein egoeratan betetzen zitzaizkion begiak malkoz. Etxekoek adarra jotzen zioten telebistako albistegiko musika entzutean negar egiten zuelako.

Eta nondik dator"Motxin"ezizena? Jaiotzez ezkerreko eskua faltaeta horren ordez muinoia baitzuen.

Bizitzan edozer gertatuta ere, dena ilusio handiz jasotzen zuen. Katarata ebakuntza izan ondoren, hain ondo ikusten zuen, Zumarragatik etxerako bidean, autobiako kartel guztiak irakurriz etorri zen, ume bat bezala, pozaren pozez hain ondo ikusten baitzuen.

Mendizale elkarteazen bere txokorik preziatuena.Ordu dezente pasatzen zituen bertan; sukaldean ari zenean batxuri zopa eta arraina saltsan ziren bere espezialitate handienak,mozorrotu ere egiten zenjaietan. Edozein momentutan izanda ere,inguruan beti giro alai eta jatorra sortzen zuen.

Hamabost urte pasa diren arren, ez zaitugu ahaztu Juanito!!

El 24 de Mayo se cumplieron 15 años desde que las cenizas de Juanito se esparcieron en su amado Sagastarri. Un montañero tan queridoy apreciado se merece este pequeño y cariñoso recuerdo. Era capaz de transmitira los demáslas sensaciones que recibía de la montaña, y consiguió promover el montañismo entre los niños y niñas. Era encantador y cariñoso con todos, sobre todo con sus nietos y nietas. Era tan enormemente sensible que en cualquier momento se le saltaban las lágrimas; tanto, que sus hijos le tomaban el pelo porque le decían que lloraba incluso al escuchar la música del telediario. "Motxin"era su apodo, por el muñón que tenía de nacimiento en la mano izquierda. Cualquier cosa, por pequeña que fuera, le ilusionaba. Como cuando le operaron de catarátas y vino todo el camino de vuelta del hospital leyendo uno por uno los carteles de la autovía.

2018KO MENDIKO JARDUERAK

Urtarrilak 7

Guztira 48 mendi irteera burutu ziren. Herri inguruko bazterretatik batzuetan: Usurbe, Murumendi, Mutiloa/Liernia, Intxustiko iturria, Uzkoiti, Alotza, Pikuta, Txindoki, Igaratza, Gaztelu, Esparru, Arantzamendi, Kizkitza, Beloki, Irimo, Zazpiko punta,.. Goierritik pixka bat haratago bestetan: Ernio, Gazume, Urbasa, Besaide, Uzturre, Linas de Broto(Pirinioak),..

Aipatzekoa eskolekin batera egindako irteerak, 13 guztira. Bestalde, Aranealde elkartekoekin ere 4 mendi irteera burutu ziren.

Argazkietan Elkarteak egindako lehenengo eta azkeneko mendi irteerak2018ko

Su txoko preferido era la sociedad, donde pasaba muchos ratos: en la cocina preparando su especialidad (sopas de ajo y pescado en salsa) o disfrazándose para las fiestas. Siempre creaba un ambiente alegre y agradable a su alrededor.

Aunque hayan pasado 15 años, no te hemos olvidado Juanito!!

En total se realizaron 48 salidas. Algunas por los alrededores y otras un poco más allá del Goierri.

13 salidas fueron con la participación de las escuelas y otras 4 con las montañeras y montañeros de Aranealde.

2018ko abenduak 3

Goierriko mendizale beteranoak X. urteurreneko jardunak

ANDONI SARRIEGI



2009an hasi ziren Goierriko jubilatu batzuk, 21 zehazki, jubilatuentzako mendi ibilaldiak antolatzen Ordizian. Hamar urteren buruan ehundik gora dira jada taldean izena emandakoak eta 5.000tik gora orotara egindako km ak. Iaz jada eman nuen hamar urte horietan egindako ibilien berri eta, aurten, hamargarren urteurren berezi horretarako antolatu eta burututako ekitaldien berri emango dizuet.

Antolatutako ekitaldiak bi eratakoak izan ziren, batzuek taldekoentzat antolatuak eta beste batzuek irekiak, edonorentzat antolatuak.

Joxe Imatzi omenaldia

Hasteko, 2018ko apirilaren 18an, asteazkena, Joxe Imatz taldeko beteranoenari –orduan 80 urte– aitortza egiteko ospakizuna burutu zen. Lizarragako mendatean Zunbeltz aldera jaistean dagoen biragunean (NA-120 errepideko 23,6 km-an) abiatu, Andimendin gora egin eta Euskal Herriko erdigunetik pasatu ondoren, Unanun amaitu zuten ibilaldia (23,5 km) eta herri horretako Denok Bat elkartean bazkaldu zuten. 64 ibiltarik egin zuten ibilaldia eta 73 lagun bildu ziren omen bazkarira.

GMBko mendizaleak Andimendin 2018-04-18an, Euskal Herriko erdigune geografikoan, 80 urteko Joxe Imatz omendua aurrean dela.

Prentsaurrekoa

Maiatzaren 25ean prentsaurrekoa eman zen Goierriko Lanbide Eskolan 2018. urtean egin asmo ziren ekitaldien berri emanez eta, egia esan, bertan aurreratuta bezala burutu ziren guztiak.

Goierriko mugetako bira

Ekainaren 9an hasita, 6 larunbatetan, Goierriko mugetako bira burutu zen eta urriaren 20an bukatu ia 123 km egin ondoren. Izena eman zuten guztientzako ibilaldi irekiak izan ziren eta sei etapak honako hauek: Gaintza Aratz-Matxinbenta; Aratz-Matxinbenta Urretxu; Urretxu Udana; Udana Otsaurte; Otsaurte Lizarrusti eta Lizarrusti Gaintza. Horien berri xehetasun guztiekin argitaratu zen Goiberri astekarian.

GMBko mendizaleak eta beste batzuk Murumendi gainean (870 m), 2018-06-09an, Goierriko Birako lehenengo etapan.

Euskal Herriko Mendizale Jubilatuen I. Topaketa Oiduegin

Ekainaren 26an, asteartea, Aralarko Oiduegin (Oiduin) Euskal Herriko Mendizale Jubilatuen I. Topaketa egin zen. Aurretik, ordea, hainbat ibilaldi desberdin egin zituzten mendizaleek Aralarren talde desberdinetan. Goierrikoek adibidez, 59ko taldea goizeko 8etan abiatuta, honako hau egin zuten: Lizarrusti-Iraioko lepoa-Igaratza-Intzako dorrea edo Irumugarrieta-Beaskingo lepoa-Enirio-Oidui. Igaratzan Larraiztik igotako beste 3 kide eta bertaratutako beste 2 gehitu zitzaizkien eta guztira 64 lagun ibili ziren, 18 emakumezko eta 46 gizonezko. 13:35ean iritsi ziren Oiduira.

9:40an, berriz, GMBko bi kide gidari zituztela, Larraiztik abiatu ziren Doneztebeko Arkupeak taldeko 40 partaide. Larrunarri edo Txindokira igo ziren zuzenean eta gero Alotza ertzetik aurrera Oiduegira 13:15ean iritsi ziren.

Hirugarren mendizale-sail bat goizeko 8:45ean irten zen Lizarrustitik Igaratzara, zehazki, Ziburuko (Lapurdi) 9 kideko taldea eta Oarsoaldeko Jaizkibel taldeko 2 lagun. Handik Oiduegiko bilkurara jatsi ziren 13:30erako.

ikusi zituzten 13:05ean Oiduegin gelditu aurretik.

GMB-ko beste talde batek, berriz, lanean jardun zuen Oiduegin goizean hasita, guztientzako jatekoa prestatzen. Talde guztiei argazkiak atera zitzaizkien eta ondoren jana eta edana, aurkezpenak, eskertzak, kantuak, etab. Talde osoaren argazkia ere atera zen, 270 lagunekoa. Arratsaldeko 16etan abiatu ziren gehienak Lizarrustirantz eta gelditu zirenek inguruak txukundu eta hondarrak bildu zituzten. Egun gogoangarria!

Oiduegiko topaketan bildutako mendizaleen argazkia. (2018-06-26an).

Laugarren taldea, 76 lagun ingurukoa, Guardaetxetik abiatu zen 9:30 inguruan. Batetik Iruñeko Aitonak eta El Roble mendizale jubilatu taldeetako 25 partaide, bestetik, Bilboko Burdinola taldeko 6 kide eta, azkenik, Donostiako Helduen hitza taldeko 45 lagun eta haien artean 83 urteko (iaz 84 beteko zituen) Agurtzane Mujika. Guardaetxetik Igaratzara eta handik Oiduegira. 13:00etarako Oiduegira iritsi ziren.

Bosgarren multzotxo bat Oarsoaldeko Urdaburu taldeko 12 lagunek osatua, Olakosaroitik (Akapulkotik) Oiduegira igo ziren Zaldibiatik Nafarroara doan galtzada zaharretik.

Azkenik, goizeko 10etan abiatuta, beste talde bat Lizarrustitik Oiduegira igo zen. Gasteizko Mendian euskaraz taldeko 3 kide, Donostiako Erizain beteranoen taldeko 6 kide, Goierriko beste 3 kide, GMBko 5 kide eta Lauri Urkiza, Gipuzkoako Mendi Federazioko lehendakaria, igo ziren elkarrekin. Lareora igo ondoren, Baiarrate zeharkatu eta Supitaizko tumuluak, Oiduegiko trikuharriak eta Jentillarrikoa ere

Argazki-erakusketa eta ikusentzunezkoa

Irailaren 1ean, 10 urteko ibilaldietako 176 argazkiz osatutako "Amets gauzatua" izeneko erakusketa eta "Hamar urteko uzta" izeneko ikusentzunezkoa estreinatu ziren Idiazabalen. Bi erakusgarri horiek ondorengo herri hauetan egon dira ikusgai 2019ko otsailera arte: Idiazabalen, Zaldibian, Lazkaon, Beasainen, Ordizian, Seguran, Ataunen eta Itsasondon eta denetan egin dira aurkezpenak ikusentzunezkoa proiektatuz.

Gainera, 2018-10-16an, asteartea, Ordiziako Herri Antzokian proiektatu zen "Hamar urteko uzta" izeneko ikusentzunezkoa babesleentzat eta ikusi nahi zuten guztientzat. Aretoa ondo bete zen.

Ezkaraiko hiru eguneko egonaldia eta ibilaldiak

Irailaren 12tik 14ra, hiru egun igaro zituzten GMB-ko kideek Errioxako Ezkarain eta hiru egunetan hiru ibilaldi eder egin zituzten. Lehen egunean Santa Barbara-Demanda, bigarrenean Valdezcaray-San Lorentzo

eta hirugarrean Valdezcaray-Pancrudos-Valvanera. Guztira, ia 50 km, batez beste egunero 1.100 m igoz eta 950 m jaitsiz. Giro ona izan zuten eta oso gustura egin zituzten hango ibilaldiak 8 emakumek eta 37 gizonek.

GMBko mendizale-taldea San Lorentzo gainean (2.270 m), 2018-09-13an.

Mendi bete diru erakusketa eta hitzaldia

Mendi bete diru izeneko argazki-erakusketa jarri zen Ordiziako D'elikatuz aretoan. Munduan zehar mendien irudiekin ateratako diru paperekin kataluniarrek osatutako bilduma hori azaroaren 10etik aurrera ikusgai egon zen Ordiziako D'elikatuz aretoan eta, hilaren 26an, arratsaldeko 6etan, Antton Iturritza mendizale handiak, diru paperen nahiz azaltzen ziren mendien banan banako azalpenak eman zituen bertan emandako hitzaldian. Oso interesgarria izan zen munduko mendien eta diruen berri jakiteko.

bira izeneko ikusentzunezkoa proiektatu zen Ordiziako Barrena kultur etxean. 2016an eta 2017an, 32 etapatan Arabako mugetan egindako ibilaldien berri eman zen ikusentzunezkoaren bitartez.

Urte-amaierako bilkura eta bazkaria

GMB-koentzat berezia izan zen 2018. urteari bukaera emateko, abenduaren 12an Arriarango Intxaurpe elkartean egin zen bilkura eta bazkaria. Bertan, 10 urtetan zehar mendian taldean ibilitakoak bildu ginen, gabiltzanak eta lehenago ibiliak. Tamalez, hildako 4 kide ere gogoratu behar izan genituen. Bakarren batek edo bestek ez zuen bertaratzerik izan baina 108 lagun bildu ginen. Bazkalondoan, eskertzak, dantza, kantuak, umore ona eta kontu asko. Tartean Xabier Olanok propio taldearentzat sortutako kantua estreinatu zen: Goierriko Mendizale Beteranoen Ereserkia eta geroztik bidaia askotan kantatzen dugu. Egun gogoangarria urtea bukatzeko.

10 urteko ibilaldien argazki-erakusketa, Idiazabalen, estreinatu zen egunean, 2018-08-31n.

Pirinioetako Goi-ibilaldiaren 2. zatiaren proiekzioa Beasainen

Beasaingo XI. Mendi Astearen barruan, urriaren 23an, asteartea, iaz proiektatutakoaren osagarri moduan, GMB-ko mendizaleek 2014, 2015 eta 2016an egindako Pirinio osoko zeharkaldiaren 2. zatia, Benasquetik Banyulserako ikusentzunezkoa (18 etapa), ikusi ahal izan zen Igartzako jauegian.

Arabako bira ikusentzunezkoaren proiekzioa Ordizian

Azaroaren 26an, arratsaldeko 7etan, Ordiziako Mendi Astearen barruan, Arabako

2018an zehar egindako ohikoak

Ospakizun eta ibilaldi berezi horiek gorabehera, 2018an ere mendiko egitarau arrunta jarraitu da eta honako ibilaldi hauek egin ditu taldeak:

- Nafarroa erdialdean zehar 3 ibilaldi otsailean eta martxoan.
- Ardoaren eta arrainen ibilbidea. 8 etapa Oiondik Bermeora. Martxoaren 7an hasi eta ekainaren 7an amaitu zen. Guztira, 174 km egin zituzten 40 h eta 25 minututan 10 emakumek eta 44 gizonek. Batez beste 22 km etapako eta 5 h eta 05 min ibiliko.
- Camilleren bideko Linza-Gabardito

GMB taldean 10 urteen barruan ibilitakoen bilkura Arriaranen 2018-12-12an.

ibilaldi gogorra egin zuten uztailaren 17an 5 emakumek eta 25 gizonek. 20 km, 7 h eta 25 minututan 1595 m-ko desnibela igoeratan eta 1.430 m-koa jaitsieratan. Sei etapa dira eta lau eginda daude baina beste biak egitea ez zen lortu. Agian aurten egingo dira.

- Orain arte 10 urteetan egindakoekin, Euskal Herriko Bira osoa osatzeko Zuberoako bi etapa falta ziren eta horiek ekainaren 20an, 27an eta uztailaren 10ean egin ziren, bat errepikatu egin zen-eta.

- Artzaintzaren bidea. Irailaren 25ean hasi eta azaroaren 21era bitartean, Artzaintzaren Naturbideko 8 ibilaldi egin ziren, Arantzazun hasi eta Arabako Bovedaraino joanda. Batez beste 9 emakume eta 39 gizon ibili ziren ibilaldiko. Guztira 187 km egin ziren. Artzaintzaren Naturbide horrek itzulera ere badu Hegoalderagotik eta horren jarraipena egitea izango da 2019ko zereginetako bat.

- Abuztuan Pirinioetan ere egin zuten batzuek ibilaldi segida bat.

Horraino X. urteurreneko, 2018ko, kontuak. Aurten, Nafarroako Erriberako eta erdialdeko lautadako ibilaldi batzuekin eman zaio hasiera urteari otsailean eta martxoan. Segidan Artzaintzaren Naturbideko ibiliak egingo dira 19ak osatu arte. Camilleren bidea osatzeko falta diren biak ere egin nahi lirateke. Araba eta Burgos mugako beste ibilbide batzuek ere pentsatuta daude. Udaldian Picos de Europan ere egingo dira agian beste etapa batzuk. Etab. Esan beharra dago, hemen aipatutako 10 urteetako ibilaldien informazioa www.gmb.eus webgunean dagoela edonoren esku ibilaldi bakoitzaren argazki, kronika, track eta abarrez osatuta.

Loinatz-jaiak ondo igaro eta ez ahaztu ibiltzeaz, dabilen harriari ez zaio-eta goroldiorik biltzen.

■

OLDE

bideo produkzioak

Zaldizurreta 5
20200 BEASAIN
Gipuzkoa

T: 943 88 00 75
F: 943 88 52 04
M: 608 57 81 76
oldevideo@euskalnet.net

II. Beasaingo motor asteburua 2018

2018 azken hilabeteanII. Beasaingo Motor Asteburua ospatu genuen herriko kaleetan zehar ekitaldi ezberdinak antolatuz, adin guztietako pertsonei zuzenduak. Helburu nagusienetarikoak horiexek ziren, ezberdina eta guztientzat izatea, herrian giroa sortuz eta 2017an antolaturiko lehenengo edizioari segida emanez.

Asteburua hiru atal nagusietan banatu genuen: heziketa. segurtasuna eta ikuskizuna. Herriak parte hartu ahal izateko ekintzak antolatu nahian hasi ginen aste bukaera borobiltzen, 2017an antolatu genituen ekintzez gain berrikuntza nabarmenak gehituz, hala nola, auto klasikoen erakusketa, Albert Llovera-ren hitzaldia eta Trial ikuskizuna.

Helduek, heziketaren alorrean, Usurbe Antzokian izan zuten hitzordua. **Albert Llovera** andorrarrak hitzaldi bat eskaini zuen bere bizi, borroka eta istorioa kontatuz. Albert gaur egunean munduko rallycross (RX) txapelketako gidaria da eta gurpildun ahulki batean mugitzen da eskiatzen 18 urterekin izan zuen istripu larri baten ondorioz. Mezu garrantzitsua zuen Albert-ek plazaratzeko eta aukera polita izan zen berari entzunez barruak astindu eta kontzientzia asaldatzeko.

Heziketarako beste modu bat historia ikasiaz ere badelakoan gaude eta ondorioz **ibilgailu klasikoen erakusketa** antolatu genuen. 1930 urte inguruko ibilgailuak egon ziren ikusgai udaletxeko plazapean, tartean Euskal Herrian oso osorik eraikitako hainbat motor. Liburu eta ibilgailuetako pieza ezberdinak erosteko aukera ere izan zen azoka berezi batean. Bestalde, urteetan berriagoak ziren hainbat ibilgailu klasikoen erakusketa udaletxeko plazan kokatuko zen.

Segurtasun gunean ikastaroak, iraultze simulagailua eta lehen sorospenak.

Segurtasunari dagokionez Gipuzkoa plaza hainbat ekintzen kokaleku izan zen. Gidabaimena aurkeztu eta egunean bertan izena emanez segurtasunez gidatzeko ikastaroetan parte hartu ahal izan zen, zirkuitu itxi batean teoria zein praktika landuz (konoak ekidin, balaztak era ezberdinean erabili, bolantea maneiatzen ikasi...). Iraultze simulagailua ere bertan kokatzen zen, istripu batean autoa iraultzerakoan jasandakoaz jabetu eta egoera horretan zer egin ikasteko asmotan. Istripuen ondorioz sortutako zauri edota egoerei zein erantzun eman jakiteko lehen sorospenen ikastaroa antolatu genuen. Gidabaimena duen edozein herritarrentzat zuzenduriko doako ikastaroak izanik, Euskal Herri mailan ekitaldi berritzailea dela aipatzea beharrezkoa da,ikastaro hauetatik 250 lagun baino gehiago inguratuzirelarik.

Umeek bestalde Gernika pasealekuko frontoian, bide heziketa ikastaroetan parte hartzeko aukera izan zuten, kart elektrikoak baliatuz, errepideetako seinale, zebrabide edota oztopoen aurrean ze jarrera eduki eta zein erabaki hartu ikasi zutelarik. Jolaserako scalextric erraldoi bat eta motor elektrikoak ere egon ziren egun pasa polit bat igarotzeko asmoz.

Osagarri gisara Nafarroa Etorbidean hainbat stand, denda eta auto ezarri zituzten gure babesleek, lasterketetako motor edota kaleko auto ikusteko aukera egon zelarik besteak beste.

Ikuskizunaren nahiak asetzeko beta ere izan zuten larunbatean bertaratutakoek. Bideluze plazan trial ikuskizuna antolatu genuen iluntzean. Motorrak baliatuz zirkuitu moduko batean aurkitu zituzten oztopo guztiak gainditzen saiatu ziren pilotuak beraien trebetasuna erakutsiz.

Igandean, Erauskin Igoera izan zen ekitaldi nagusia. Herritar eta Goerritar ugariren parte hartzeak sortzen duen ikusmiraz gain



Umeek kart, scalextric eta motorrez gozatzen eta ikasten.

Marcel Justribo trial pilotua.

Euskal Herriko pilotu onenak bertaratu ziren 2,5 km ko ibilbideaz gozatzera. Garikoitz Flores Sakana Motorsporteko kidea izan zen garaile sailkapen nagusian bere BRC 53-a baliatuz.

Lasterketa arrakastatsua izan zela esan dezakegu autoen maila, ikusle kopuru eta segurtasuna kontutan harturik. Azken arlo hau betetzeko hesiez eta gurpilez josi genuen herrigunea eta segurtasunaz arduratzeko sortutako antolakuntzako kideek egindako lanaren ondorioz, hasieratik helburu nagusitzat hartu zena lortu genuen, segurtasuna bermatzea.

Oro har, aurtengoa ere, asteburua ezberdina izan zela iruditzen zaigu, inguru hauetan ikusten ez diren ekintzez gozatu ahal izan genuelako. Anitza izan zela ere iruditzen zaigu, ume zein heldu ikusi genituelako frontoiko estalpean gozatzen edota Gipuzkoa plazan irribarre batez kotxeetatik irteten. Hori dela eta, antolakuntza aldetik gustura gaude emaitzarekin, parte hartzearekin eta orokorrean II. Beasaingo Motor Asteburuarekin.

Jon Aranburu Beasaindarra V. Erauskin igoeran.

Eskerrak udaletxe zein babesle guztiei emandako laguntzagatik eta baita ekitaldi hau gauzatzea posible egin duen pertsona orori ere. Eskerrik asko baita ere boluntario gisa lanean ibili zineten guztiei ere, zuen laguntza ezinbestekoa izan da asteburu hau ospatzeko. Beste bat arte!

■

Pelota txapelketa

JULEN RUIZ

Badira 10 urte lehenengo Beasaingo pelota txapelketa egin zenetik, eta garbi dago txapelketak bere lekua eta arrakasta izaten jarraitzen duela bai festetako egitarauan, bai herritarren egutegian. Festetan biltzen den jendetzaz aparte, bizpahiru hilabetez aurretik astebururo saiatzen dira pelotariak ikuskizuna ematen, ongi ateratzen diote zukua beraz pergoletako pilotalekua, "Atanotxiki"-z ere ere ezagutzen dena. Esan beharra dago frontoia guztiz aproposa dela horrelako partiduak jokatzeko, alde batetik, frontoiaren neurriengatik "trapuzko" pelotekin jolasteko eta bestetik, bere kokapena herriaren erdian dagoelako.

Atzera begiratuz, hasierako urteetan iñoiz baiño bikote gehiagok emanten zuten izena, 40-tik gora, gaur egun 18 bikoteen bueltan dabiltzen arren. Hastapenean, halaere, ez zen herrikoentzat mugatua, hau da, beste herrietako edonork ahal zuela parte hartu ,alegia. Arrazoi desberdinegatik ordea segituan pasa zen bikoteko batek beasaindarra behar zuela izan, eta handik urtebetera eta harrezkero Beasaingoentzat egiñiko txapelketa geratu da, ikusiko da etorkizunean.....

Atzo eta gaurkoaren desberdintasunak horiexek dira, bikote gutxiago daudenez beste eskema bat egin behar da, aurten adibidez denek denen aurka aritzeko aukera ematen du, horrek sortzen duen saltsarekin. Eta hasiera baten email edo ahoz ahoz jakiñarazten zena gaur egun wassap bidez egiten dela.

Azkenik, gonbidatu sasipelotari-pelotazale guztiei parte hartu dezaten Atanotxikin jokatuz edota ikuskizunaz gozatuz. Pelotan jolasten duen herria ez baita iñoiz hilko.

GORA EUSKAL ESKU PELOTA!

Orain arteko Txapeldunak:
2010. Urteaga eta Zufiaurre
2011. Aranburu eta Garmendia
2012. Huarte eta Zufiaurre
2013. Urteaga eta Goikoetxea
2014. Urteaga eta Goikoetxea
2015. Urteaga eta Goikoetxea
2016. Urteaga eta Goikoetxea
2017. Urteaga eta Goikoetxea
2018. Urteaga eta Goikoetxea

■

Roca
Antonio Elósegui
SANEAMIENTOS
www.antonioelosegui.com
Nafarroa Etorbidea, 34
T: 943887488
BEASAIN

Bealek 2018an beasaingo 4. Challengeko finalistei sariak banatu dizkie

UDALETXEKO BATZAR ARETOAN, URTARRILAREN 19AN
19 DE ENERO DE 2019, SALÓN DE PLENOS DEL AYUNTAMIENTO

Beasaingo Challengean puntuatzen duten lasterketak:

- Garingo medi lasterketa (urtarrilean)

- Beasaingo herri lasterketa, 7km mixtoa edo 14km(martxoan)

- Xabier Mendizalen oroimenezko mendi lasterketa 11km edo 23km (martxoan)

- Ehun milakeko edozein lasterketa,100millak, G2H edo Mari Murumendi maratoia (uztailean)

- Usurbeko igoera 4,7km (irailean)

- San SIlbertre Krosa 9km (abenduan)

Liga de carreras de Beasain que puntuan:

- Carrera de montaña de Garin, 11 km (Enero).

- Bealak, circuito urbano de una o dos vueltas, 7 ó 14 km (Marzo).

- Carrera de montaña de Arriaran memorial a Xabier Mendizabal, 11 o 23 km (Marzo).

- Ultra trail Ehun milak, cualquiera de las tres carreras, EHM (168 km), G2H (90 km), Mari Murumendi, mmm(42 km), (Julio).

- Subida a Usurbe,4,7 km (Septiembre).

- Kros de San Silvestre, 9 km (Diciembre).

6 lasterketak osatu dituzten 9 korrikalariak:
- Juan Carlos Rodriguez.
- Jon Aizpuru.
- Amaia Barandiaran.
- Ander Etxeberria.
- Iker Urteaga.
- Andoitz Imaz.
- Xabier Yurrebaso.
- Javier Dominguez.
- Ruben Garcia.

Los 9 finalistas de las 6 carreras son:
- Juan Carlos Rodriguez.
- Jon Aizpuru.
- Amaia Barandiaran.
- Ander Etxeberria.
- Iker Urteaga.
- Andoitz Imaz.
- Xabier Yurrebaso.
- Javier Dominguez.
- Ruben Garcia.

BEALAKEK ANTOLATZEN DITUEN LASTERKETAK

- Herri lasterketa: herri gunean ospatzen den lasterketa da. Aurten, berrikuntza bezala, 7 kilometroko lasterketa mixtoa izan da (neska-mutilez osaturiko bikoteekin) eta hoy bezala, 14 kilometroko bakarkako lasterketa. Benajmin zein alebin mailako probak ere izaten dira. Proba hau, martxoan ospatu zen.

- Arriaran auzoan ospatzen den Xabier Mendizabalen oroimenezko mendi lasterketa. Intxaurpe elkartearekin batera antolatzen dugu, 11 eta 23 kilometrotako bi ibilbide izaten dira. Aurretik, txikienentzako lasterketak ere ospatzen dira. Martxoan izaten da lasterketa hau. Lasterketa ospatu aurretik, lasterketa ezagutzeko "kedada" egiten da aste pare bat lehenago, bertako zein inguruko jende dexente elkartzen garelarik bertan.

- Errelebo lasterketa: banjamin eta alebin mailako lasterkarientzat ospatzen den lasterketa da. Orain dela urte batzuetatik, eskola kirolaren programaren barnean dago. Txikienek 4x125m eta alebinek, 4x250m egiten dituzte. Lasterketa honetan 800 haur inguruk parte hartzen dute eta Igartza monumento multzoaren inguruan ospatzen da urriko hilabetean.

CARRERAS QUE ORGANIZA BEALAK

- Carrera sobre circuito urbano de 7 km (este año como novedad , corriendo en la modalidad de mixto, parejas chico-chica), o 14 km en individual. Un recorrido más corto para los niños y niñas de categorías de Benjamín y Alevín. Prueba que se realiza en el mes de Marzo.

- Carrera de montaña en el barrio de Arriarán, junto con la sociedad Intxaurpe sobre un recorrido de 11 o 23 km y otro recorrido más pequeño para los niños y niñas de caregorías Benjamín y Alevín. Prueba que se realiza un Sábado por la tarde de Marzo.

- Para esta carrera de montaña, Bealak y la Sociedad de Arriaran Intxaurpe organizan un entrenamiento unas semanas antes de la carrera, sobre los 2 recorridos, con unos guías, en grupos de diferentes niveles de ritmos de carrera, invitando a muchos corredores de montaña de nuestra comarca Y de otras, enseñando el recorrido, explicando los tramos, incluso enseñar a correr por el monte a principiantes que quieren conocer esta modalidad deportiva.

- Bealak taldean 70 lagun inguru gaude eta guk antolatzen ditugun ekintzez gain, beste elkarteek guri ematen diguten bezala laguntza, guk ere eurei ematen diegu.

- Iazko urtean, 2018an, taldeko korrikalariek 29 mendi lasterketa ezberdinetan parte hartu genuen, 14 podium lortuta. Asfaltoko lasterketei dagokienez, 24 lasterketa ezberdin izan ziren eta 6 podium lortu genituen.

- Carrera de relevos para los niños y niñas de las categorías de Benjamín (4X125) y Alevín (4X250), en un circuito circular en las inmediaciones de Igartza. Prueba introducida en el programa del deporte escolar de la comarca del Goierri, con una participación de unos 800 niños-as realizándolo en el mes de Octubre.

- Bealak cuenta con poco más de 60 socios y también presta ayuda a otros equipos, sociedades deportivas, culturales, etc.

- En el año 2018, los/as corredores/as de bealak corrieron 29 carreras de montaña, consigiendo 14 podios y 24 carreras de carretera con 6 podios.

Bealak
Beasaingo Lasterketak
www.bealak.com
bealak@bealak.com

Agur Iñaki!

ANDONI SARRIEGI

Iñaki Muxika Garaialde, Beasaingo "Arritta" (Arrieta) baserriko semea, 2018-05-22an joan zen gure artetik, aurreko igandean (maiatzaren 20an) Loinatz-jaietako herri-kirolen saioan, urtero bezalaxe antolakuntzan jardun ondoren. 69 urte zituen.

Iñaki Muxika 2004ko Gabon egunean Olentzero gisa Andramendi ikastolako ikasleekin (Maite Berasaluze emazteak utzitako argazkia).

Ezezagun edo kanpotar batek hitaz galdetuz gero, zer esan? Ba, Beasaingo pertsonaia berezietako bat izana haizela, tarteka-marteka sortzen diren herriko seme edo alaba berezi horietako bat. Umeentzat Olentzero, kaletar askorentzat Iñaki bizarduna, herri kirolen zaleentzat herriko herri-kirolen ardatza. Hurbilagotik ezagutu hindugunentzat, morrosko indartsua, euskara sentitzen eta bizitzen zuen euskalduna, abertzalea, ekintzailea, sutsua, bertako eta herriko ohituren eta gauzen mantentzailea eta sustatzailea, ikastola zalea, trikiti zalea, eta abar, eta abar, baina batez ere ekitaldien antolatzaile handia.

Olentzero pertsonaia hainbat urtez irudikatu huen herrian Gabon egunean. Egia esateko, irudi ezin hobea eskaintzen huen horretan. Otsailaren 5ean jaioek ondo gogoratuko haute urte askotan zehar heuk antolatu eta deituta egun horretan egindako afariengatik. Horrelako bilkurak barru barrutik estimatzen hituen.

Estanda galdategian lan egin eta erretiroa hartu arren, Arritta jaiotetxean ere jarraitzen huen hire gustuko zereginetan hire txerri, asto, etab. tarteko. Ikastola zalea izaki, hire esku zegoen guztia egin huen, hire irudia ere jarriz, Beasainen ikastolak biziraupena izan zezan Andramendi ikastola laguntzen eta urte askotan zehar egin ere.

1993an Beasain Jaietan urtekari honetan bertan argitaratutako elkarrizketa batean aitortu hidanez, 16 urterekin (1965ean) hasi hintzen Aste Santuko prozesioetan santu eramaten eta prozesio haiek iraun zuten arte, urtero hartan jardun huen noski. Baina prozesio haiek egiteari utzi arren, urtero Loinatz bigarrenean egiten den horretan jardun berezia izan huen urte askotan. Arrittako aurreko belaunaldietatik zetorren usadioari jarraituz, hire aita Luis zenak 1969an, hatzeko maskur bat tarteko, 40. aldiz eramaterik izan ez zuelako, hik 20 urterekin hartu hion erreleboa beste 42 urtetan (2011n semeari laga arte) San Martinen irudia parrokia zaharretik San Martina eraman eta ekartzeko. Hori egitea sakratua zuan hiretzat, Beasainmendiko eta Loinatz zeharreko hire auzokideekin eta beste batzuekin batera jardunez.

Iñaki Muxika, Abarizketako Aranburu eta Otañoko Leunda andakideekin batera, San Martinen irudia garraiatzen (Maite Berasaluze emazteak utzitako argazkia).

Trikitilari jaialdiak ere antolatu hituen hainbat urtez 1985ean hasita. Hamarkada hartan sona eta indar handia izan ziaten jaialdi haiek eta txapelketek Euskal Herrian, Gipuzkoan bereziki, eta Beasainen ere izan zituan txapeldunak. Ba hi hartan ere sartu hintzen eta 1990eko Beasain jaietan hartan aitortu hidanez, Beasainen bertan, bertako ume, gaztetxo eta gazte artean 50 bat trikitilari Errege egunez biltzea, arrakasta handitzat heukan. Izan ere ez zuan gutxiagorako. Baina hik hura ere gogotik bultzatu huen eta esan hidanez erakundeen laguntzarik gabe gainera, pultsura alegia.

Baina horiek guztiak ahaztu gabe, hire marka eta seinale nagusia herri-kiroletan utzia haiz herri honetan. 1990eko elkarrizketa hartan esadan moduan, 1978an hasi bide zineten Bideluzeko jaietan sokatira-saioak egiten eta 1979ko otsailaren 5ean, "I. Loinaztar Martin Sokatira Lehiaketa" antolatu eta jokatu zenuten. Gero, Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketetan parte hartu eta ohoretsu bukatu (30en artean 12.). Hainbat tokitan jardun zenuten tiraldiak egiten, etab.

Iñaki Muxika harri-jasotzen 1970.eko hamarkadan (Maite Berasaluze emazteak utzitako argazkia).

Gure artean askotan bezala, diferentziak ere sortu bide zituan zuen artean eta 1980an bi talde egin: ARRANO BELTZA eta BEASAIN. Zoritxarrez, ez batak eta ez besteak ez zian nonbait kirol-jardueran bizi luzerik izan, baina handik jarraitu zian aurrera hire ARRANO BELTZA HERRI-KIROL TALDEAK urtero-urtero herrian herri-kirol jaialdiak antolatzen. Aurten jada 40 urte betetzen dituk eta gaur egun ere herrian, zorionez, baditiagu herri kiroletan trebeak, batzuek oso goi-mailakoak gainera. Ez zekiat horrek eraginda ala eragin gabe, baina Antzizar kiroldegian, baduk gaur egun herri-kiroletan prestatzeko gune berezia eta, herrikoak ez ezik, kanpokoak ere etortzen dituk prestakuntzak egitera. Baduk zerbait! Elkarrizketa hartan esadan "XII. Loinaztar Martin Sokatira Lehiaketa" jokatu zela 1990ean. Ondorengo urteetan horrek ez zian jarraipen handirik izan eta bertan behera gelditua duk, baina sustraiak hor zeudek berriro berpizteko ere.

Iñaki Muxika, 2004-05-30ean (herri-kirol saioen XXV. urteurrenean), Arrano Beltza Herri- kirol taldean urte askotan zehar laguntzaile izandako Jose Luis Camino eta Agustin Larrea lagunekin, Haimar Irigoien eta Hodei Iruretagoiena (Izeta IV.a) harri-jasotzaileekin. (Maite Berasaluze emazteak utzitako argazkia).

Hire beste irudi handi bat, Iturengo Aurtizko joaldunekin tarteka adarra joz kalean gidari ibiltzekoa izan duk. Ia 40 urtetan zehar herri osoko jendeak hala ikusi izan hau eta irudi hori, Olentzerorenarekin batera, ahaztezina duk Beasainen.

Iñaki Muxika Iturengo Aurtizko joaldunekin Loinatz zortziurren batean. (Maite Berasaluze emazteak utzitako argazkia).

Horrek guztiak egin hau benetako pertsonaia Beasainen. Guk hala gogoratuko haugu eta hurrengo belaunaldietakoek ere hala gogoratuko haute. Eskerrak Iñaki hainbeste eman digualako. Hainbeste aldiz haren irudia garraiatu huenez, Jainkoak eman diezaala hire auzotar Loinazko Martin santuaren inguruan betiraundea gozatzeko grazia.

Agur Iñaki! Egun handira arte!

■

ARNEDOKO TXOKOA

¡¡VISTE TUS PIES!!

La experiencia que tenemos en la fabricación, garantiza la comodidad, confort y calidad de nuestros zapatos.

Disponemos de tallas especiales:
Señora, desde el núm. 33 al 43
Caballero, desde el núm. 38 al 52.

Kale Nagusia, 10 - Tel.: 943 04 17 59 - 20200 **BEASAIN**
bgildemuro@gmail.com

Herri-kirolak Beasainen

ANDONI SARRIEGI

Iaz, Loinatz zortziurrenean, 2018-05-20an, herri-kirolen erakustaldia egin zen Gernika pasealekuko frontoi txikian arratsaldeko 7etan. Eguraldi ederra egin zuen arren, estalpean jokatu ziren lehiak. Gainera, alboan harmaila batzuk jarrita zeuden eta hainbat ikusle oso eroso egon ziren eserita.

Etorri ziren kirolarien artean, aldaketa bat izan zen egitarauarekiko eta Alazne Etxaburua aizkolariaren ordez, Iturengo Maika Ariztegi etorri zen. Bestalde, egitarauan sartu gabe egon arren, Saltsamendiko Aitor Urdangarin gaztea harri-jasotzen aritu zen.

HASIERAN HARRI-JASOTZAILEAK

Aitor Urdangarin herritarrak hasi zuen jarduna eta 100 kg-ko zilindro zaharrari 10 altxaldi eman zizkion 2 minutuan. Ondoren Xabier Aranburu "Guzta" idiazabaldarra eta Jon Unanue "Goenatxo III.a" azkoitiarra aritu ziren lanean eta bien artean, txandaka, 6 aldiz altxatu zuten 200 kg-ko harri laukizuzena 2'14"an.

EMAKUMEZKO AIZKOLARIAK

Ondoren, Nerea Sorondo beratarra eta Maika Ariztegi iturendarra aritu ziren aizkoran 45"-ko enborra nork lehenik moztuko. Lehia ederra ikusi genuen, eta azkenean, Sorondok 3'51"an moztu zuen eta Ariztegik 4'16"an.

Iñaki Auzrmendi aizkoran eta Jon Rekondo bikotekidea zain. Atzean Ruben Saralegi aizkoran eta Iker Vicente bikotekidea zain.

GIZONEZKO AIZKOLARIAK

Maila gorenekoak izan genituen. Batetik Iker Vicente otxagiarra eta Ruben Saralagi leitzarra (lehengusuak) eta bestetik Iñaki Azurmendi herritarra eta Jon Rekondo leitzarra. 60"-ko zutikako enbor bana moztu zuten txanda librean. Ikerrek eta Rubenek 3'22"an eta Iñakik eta Jonek 3'30"an.

BERRIRO HARRI-JASOTZAILEAK ETA TARTEAN GIZONEZKO AIZKOLARIAK

Guztak eta Goenatxo III.ak 138 kg-ko (11 arroako) harri kubikoarekin jardun zuten 2na minututan. Lehenik Guztak 8 aldiz altxatu zuen. Tartean gizonezko aizkolariek jardun zuten 60"-ko etzandako enborra mozten eta Ikerrek eta Rubenek 2'38"an moztu zuten. Iñakik eta Jonek 2'53"an. Goenatxo III.ak, bere txandan, 9 aldiz altxatu zuen 138 kg-ko harri kubikoa 2 minututan.

BERRIRO EMAKUMEZKO AIZKOLARIAK

Ondoren, Nerea Sorondok eta Maika Ariztegik 45"-ko bina enbor moztu zituzten eta oraingoan Maikak 6'33" behar izan zituen eta Nereak 6'49". Beraz, orotara, Nerea Sorondo eguneko irabazle.

BERRIRO GIZONEZKO AIZKOLARIAK

60"-ko 8na enbora moztu behar izan zituzten gizonezkoek eta proban zehar izandako aldeak berdindu eta amaiera estua ikusi genuen. Azkenean, ozta-ozta Vicente eta Saralegi garaile 19'22"an lanak bukatuta baina Azurmendik eta Rekondok soilik 2 segundo gehiago behar izan zituzten eta 19'24"an bukatu zituzten lanak. Orotara Iker eta Ruben lehengusuak garaile.

AGURRA HARRI-JASOTZAILEEK

Agurtzeko, hiru harri-jasotzaileak harri biribilekin aritu ziren. Lehenik Aitor Urdangarin 75kg-ko bolarekin eta 5 altxaldi eman zizkion. Ondoren Xabier Aranburuk eta Jon Unanuek, 100 kg-ko bolak hainbat aldiz altxatu, gerrira jaitsi, frontoian zehar ibili, altxatu, jaitsi eta azkenean lepoan biraka ibilita amaitu zuten.

2018-05-20an, Loinatz zortziurrenean, herri-kiroletan jardun zutenak, antolatzaileekin eta Udal-ordezkariarekin.

Oroigarrien eta sarien banaketa egin zen ondoren. Kirolarien argazkiak ere atera ziren eta bildutako ikuslego ugariak asko txalotu zituen ariketa guztiak. Eguraldi ederra, jende asko, eskertza guztientzat eta agurra hurrengo urtera arte.

BERRI TXARRA: IÑAKI HIL

Igandean esan bezala dena bukatu eta asteartean, hilaren 22an, iritsi zitzaigun berri txarra. Beasainen, beste hainbat gauzaren artean, herri-kirolak praktikatzen eta batez ere azken 40 urteotan antolatzen jardundako Iñaki Muxika Garaialde hil zela astelehenetik astearterako gauean (maiatzaren 22ko lehen orduetan). Igandean izan genuen gehienok berarekin egoteko azken aukera eta, hara!, asteazkenean (23an), bere hileta-elizkizuna. Beasainen herri-kirolik inork maitatzekotan, Iñakik maite zituen. Azkenean, urteko herri-kirol saio nagusia antolatu, bertatik bertara gozatu eta alde egin higun. Atseden ezak bakean eta hire lanak izan dezala jarraipena Beasainen. Hiri egiteko esker-oparirik onena dela uste diat. Egun handira arte Iñaki!

■

Ehunmilak: proiektu herrikoi eta boluntarioa

EHUNMILAK ANTOLAKUNTZA BATZORDEA

Uztaileko bigarren asteburuan izango dugu ehunmilak. Aurten mendi-lasterketen euskal trilogiaren hamargarren ekitaldia izango da. Proiektua hiru lasterketaz osatuta dago: ehunmilak (168 km eta 11.000 metroko desnibel positiboa), goierriko2haundiak (88 km eta 6.000 metroko desnibel positiboa) eta marimurumendi maratoia (42 km eta 2.300 metroko desnibel positiboa). Hiru lasterketak puntuagarriak dira UTMB probarako. Gainera, ehunmilak Espainiako ultra lasterketa puntuagarri bakarra da Estatu Batuetako "Hardrock endurance run 100 mile" probarako.

El segundo fin de semana de julio celebraremos la décima edición de ehunmilak, la trilogía vasca de carreras de montaña. El proyecto está compuesto por tres carreras: ehunmilak (168 km y 11.000 metros de desnivel positivo), goierriko2haundiak (88 km y 6.000 metros de desnivel positivo) y la maratón marimurumendi (42 km y 2.300 metros de desnivel positivo). Las tres carreras son puntuables para la UTMB. Además, ehunmilak es la única ultra en España puntuable para la "Hardrock endurance run 100 mile" de Estados Unidos.

Exijentzia desberdinak dituzten hiru proba dira, profil desberdineko korrikalarientzat, baina filosofia bera partekatzen dutenak: korrikalari herrikoiarengana hurbiltzea, 1.500 boluntarioren laguntza eta animoa eskainiz.

ehunmilak proiektua duela hamar urte sortu zen korrikalari herrikoiak ardatz hartuta, kirol-enpresa handien zirkuitutik kanpo. Korrikalari guztiek, herrikoiek nahiz elitekoek, tratu eta begirune bera daukate ehunmilaken. Gertuko eta kalitatezko tratua, korrikalariek eurek lasterketen asebetetze-inkestetan adierazi bezala. Javi Dominguez txapeldunak hau esaten du: "ehunmilakeko anoa-guneetan sartzea zure etxeko egongelan egotea da,

Tres carreras con diferentes exigencias, para diferentes perfiles de corredor, pero que comparten la misma filosofía: acercarse a la corredora y al corredor popular, ofreciéndoles la ayuda y el ánimo de más de 1.500 voluntarias y voluntarios.

El proyecto ehunmilak nació hace diez años al margen del circuito de las grandes firmas deportivas para centrarse en el corredor popular. Todas las corredoras y todos los corredores, tanto élites como populares, tienen el mismo reconocimiento y trato en ehunmilak. Un trato cercano y de calidad, a tenor de los comentarios de las corredoras y de los corredores en las encuestas de

eta zeure amak tratatuko bazintu bezala sentitzea".

Zer esan 1.500 boluntarioei buruz! ehunmilak Gipuzkoako 30 herritatik pasatzen da, eta herri guztietan daude boluntario taldeak proiektua aurrera ateratzen laguntzeko. ehunmilakeko boluntarioak dira proiektuaren benetako harribitxia. ehunmilak probak proiektu berean sentsibilitate politiko eta sozial desberdineko pertsonak... gazteak/helduak... emakumeak/gizonak... biltzea lortu du, beraien arteko giza-harremanak indartuz. ehunmilak proiektu integratzailea da, boluntarioen artean hartzen dituena adimen-desgaitasuna edo buruko gaitzen bat duten pertsonak. Proiektuak lagundu egiten die beren auto-estimua indartzen eta gizartean integratuta eta aktibo mantentzen. Azkeneko ekitaldietan Txolarte-Atzegi, Garagune eta Aita Menni zentruek proiektuan laguntzen dute.

Pertsona horiek guztiek borondatez kolaboratzen dute, trukean inolako ordainsaririk gabe, inolako protagonismo-grinarik gabe. Filosofia altruista hau ehunmilak proba antolatzen duen elkartetik bertatik hasten da, antolaketa taldeak ez baitu inolako ordainik jasotzen. Giza talde horrentzako ordainsari bakarrak dira "kamiseta boluntarioa" eta proiektuak korrikalariengan uzten duen aho-zapore gozoa. Gure helburua da korrikalari herrikoiak disfrutatu eta etxean bezala sentiaraztea. Horretan asko laguntzen du kirol honetarako Euskal Herrian dagoen zaletasun handiak. Ikusi besterik ez dago zenbat jende egoten den egunez zein gauez lasterketako edozein puntutan, partaideak animatuz (oso ezaguna da Txindokiko txalaparta) edo baserri atarietan "anoa-postu propioak" ipiniz.

Horretaz guztiaz gain, aipatu nahi ditugu proiektuaren beste bi alde garrantzitsu: partaideen segurtasuna eta probaren jasangarritasuna. ehunmilaken segurtasunak lehentasuna du: balizaje zehatza (8.500 baliza baino gehiago), korrikalarien geolokalizazioa (denbora errealean bere posizioa ematen duena) eta kalitatezko mediku-kudeaketa (mendi-lasterketetan aitzindari izan den mediku-txosten eredua eta lasterketa egunetako osasun arloko profesionalen talde zabala: 22 mediku, dagokien erizaintza-

satisfacción de las carreras. El campeón Javi Dominguez opina en uno de sus comentarios: "entrar en un avituallamiento de ehunmilak es estar en el salón de tu casa, y que te traten como tu propia madre lo haría".

¡Qué decir de los más de 1.500 voluntarias y voluntarios! ehunmilak atraviesa 30 municipios de Gipuzkoa. En todos ellos hay grupos que colaboran para sacar adelante este proyecto. El voluntariado de ehunmilak es la verdadera joya del proyecto. ehunmilak ha conseguido cohesionar en un mismo proyecto gentes con diversas sensibilidades políticas, sociales... jóvenes/adultos... mujeres/hombres... reforzando las relaciones humanas. ehunmilak es también un proyecto integrador, que acoge en su voluntariado a personas con discapacidad intelectual, enfermedades mentales, etc. ayudándoles a afianzar su autoestima, mantenerles activos e integrados en la sociedad. Centros como Txolarte-Atzegi, Garagune y Aita Menni colaboran desde hace varias ediciones en el proyecto.

Todas estas personas colaboran de forma voluntaria, sin esperar ninguna recompensa a cambio, sin ningún afán de protagonismo. Esta filosofía altruista empieza desde el mismo club organizador de ehunmilak: el comité organizador tampoco obtiene ninguna contraprestación. La única recompensa para todo este equipo humano es una "camiseta voluntaria" y la satisfacción del buen poso que deja el proyecto en las corredoras y corredores participantes. Nuestro objetivo es que el corredor popular disfrute y se sienta como en casa. A ello ayuda la gran afición vasca a este deporte, que está presente en cualquier momento del día o de la noche en cualquier punto de carrera, animando a los participantes (bien conocida es la txalaparta en Txindoki) u ofreciendo "avituallamientos propios" en las puertas de sus baserris.

También queremos reseñar otros dos aspectos importantes en el proyecto: la seguridad de los participantes y la sostenibilidad. ehunmilak prima la seguridad: un balizaje exhaustivo (más de 8.500 balizas), la geolocalización de los corredores, que permite su localización en tiempo real, y una gestión médica de calidad (modelo de informe médico pionero en las carreras de montaña, junto con un amplio

zerbitzua, eta Gurutze Gorriko 140 kide). Jasangarritasunaren alorrean, ehunmilakek hainbat neurri hartu ditu: lasterketa jarraitu ahal izateko autobusak (ibilgailu partikularren erabilera gutxituz) eta hondakinen kudeaketa. Azken horretarako, eta hondakinen bereizketa errazteko, ibilbideko anoa-gune guztietan berariazko edukiontziak jartzen dira.

ehunmilak turismorako erreferente argia bihurtu da. Nazioarteko partaidetza urtez urte handituz doa, eta nazioarteko merkatu hori erakartzeko, ehunmilak nazioarteko azokarik garrantzitsuenetan egoten da. Azoka horietan, lasterketako informazioa emateaz gain, lurraldeko baliabide turistikoak sustatzen eta promozionatzen dira. Horien artean daude mendi-ibiliak eta trail (trail station) egiteko aukerak, baina baita gure gastronomia eta kultura aukerak ere. Aldi berean, kazetaritzako kanal desberdinen bidez, asteburuan egiten diren lasterketei buruzko informazioa hedatzen da.

Amaitzeko, ehunmilakek lan egiten du berdintasunaren alde, emakumeen parte-hartzea handitzeko asmoz. Horretarako, Beasaingo Udalarekin kolaboratzen du "Zuk badezakezulako" izeneko egitasmoan. Ekimen horrek emakumeentzako berariazko entrenamenduak programatzen ditu maratoiaren ibilbidean. Horrez gain, emakumeentzako finisher arropa propioa izatea lortu dugu.

Proiektuaren filosofiaren eta egindako lan guztiaren ondorioz, probaren hamargarren ekitaldi honetan 515 korrikalarik hartuko dute parte ehunmilaken; 515, goierriko2haundietan; eta 265, maratoian. Jauzi handia dira zenbaki

equipo de profesionales médicos durante los días de carrera, formado por 22 médicas y médicos, con su correspondiente servicio de enfermería, y 140 efectivos de Cruz Roja). En el apartado de la sostenibilidad, ehunmilak toma varias medidas, entre ellas, las más importantes: autobuses para el seguimiento de carrera, minimizando el uso de vehículos particulares, y la gestión medioambiental de los residuos, disponiendo de contenedores específicos para facilitar la separación de los residuos en todos los avituallamientos del circuito.

ehunmilak es también un claro atractivo turístico. La participación internacional aumenta de año en año. Para atraer a este mercado internacional, ehunmilak está presente en las principales ferias internacionales, en las que, además de proporcionar información de las carreras, se promocionan los recursos turísticos del territorio, divulgando tanto las opciones de senderismo y trail (trail station), como las opciones gastronómicas, culturales, etc. Así mismo, hace una labor de difusión mediante diferentes canales periodísticos internacionales que siguen in situ el desarrollo de las carreras durante el fin de semana.

Finalmente, ehunmimlak trabaja por la igualdad, por aumentar la presencia de la mujer en las pruebas. Para ello, colabora con el Ayuntamiento de Beasain en la iniciativa "Zuk badezakezulako" que programa entrenamientos específicos para mujeres en el recorrido de la maratón. Así mismo hemos conseguido que las mujeres tengan sus propias prendas finisher.

horiek aurreko ekitaldiekin alderatuta, eta horren erakusgarri da lasterketek izen-emate kopurua bete dutela denbora tarte oso laburrean.

Festa dotorearekin hasi dugu urtea (Ultrafesta, martxoaren 23an), proiektu hau ahalbidetzen duten boluntarioei esker ona adierazteko, baino ehunmilak proeiktuarekin gozatzen jarraitu nahi dugu. Hurrengo hitzordua, hamargarren edizioarena, uztailaren 12-14 bitartean izango da. Zure zain izango gaituzu!

Ez dugu amaitu nahi eskerrak eman gabe korrikalariei, boluntarioei, erakundeei, babesleei eta laguntzaile guztiei. Haiek dira hasieratik proiektu honengan konfiantza izan dutenak eta urtez urte laguntzen gaituztenak proiektua pixkanaka hobetuz joan dadin. Espero dugu zuen guztien laguntza jasotzen jarraitzea datozen ekitaldietan. Denok zarete ehunmilak familia handi honen partaide! Mila-mila esker guztioi!

Fruto de esta filosofía y del trabajo realizado, en esta décima edición tomarán parte 515 corredoras y corredores en ehunmilak, 515 en goierriko2haundiak y 265 en la maratón, lo que ha supuesto un salto importante respecto ediciones anteriores, en una progresión continua. Las tres carreras han completo las inscripciones en un breve espacio de tiempo.

Hemos empezado el año con una bonita fiesta, Ultrafesta (23 de marzo), como agradecimiento a todo el voluntariado que ha hecho posible este proyecto, y queremos seguir disfrutando de ehunmilak. La próxima cita será durante los días 12 a 14 de julio, en su décima edición. ¡Os esperamos!

No queremos finalizar sin agradecer a corredoras y corredores, voluntariado, instituciones, patrocinadores y colaboradores que han confiado desde su inicio en el proyecto y que nos ayudan año a año a que el proyecto ehunmilak vaya madurando poco a poco. Esperamos seguir contando con todos vosotros en las siguientes ediciones. ¡Todos formáis parte de la gran familia ehunmilak! Mila-mila esker denoi!

oyarbide kitchen

CC Carrefour · Olaberria 20212 · Gipuzkoa
T. 943 16 16 00
olaberria@mueblesoyarbide.com

Urbieta 24 · Donostia 20006 · Gipuzkoa
T. 943 42 58 96
kitchen@mueblesoyarbide.com

www.mueblesoyarbide.com

eungroup

Mobile Shelving Systems

Edukiak modu eraginkorrean gordetzeko eta kudeatzeko espazioen optimizazioan espezialistak gara. Merkatuan lidergoa daramagu eta kalitate handiko soluzioetan azken aurrerapen teknologikoak aplikatzen ditugu.

Somos especialistas en optimizar espacios para guardar y gestionar contenidos eficazmente. Como líderes en el mercado incorporamos los últimos avances tecnológicos aplicados a soluciones de alta calidad.

+info: **www.eungroup.com**

CAF

www.caf.net

TREN IRTENBIDEAK SORTZEN DITUGU
CREAMOS SOLUCIONES FERROVIARIAS

TREN GARRAIO SISTEMEN DISEINU ETA INPLEMENTAZIOAN IRTENBIDE OROKORRAK. MURRIZTUZ ERAGINKORTASUNEZ KOSTUAK
SOLUCIONES GLOBALES EN EL DISEÑO Y LA IMPLANTACIÓN DE SITEMAS DE TRANSPORTE INTEGRALES. REDUCIENDO COSTES DE FORMA EFICIENTE